Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

# Adimen urritasuna duten pertsonen gizarteratzea: Ikaskuntza-Zerbitzu bidezko esperientzia bat, Real Genuine futbol taldearekin.

GRADU AMAIERAKO LANA

2024-2025

NAN: 73278501H

EGILEA: Arrona Ponce, Aimar

GRADUA: Lehen Hezkuntza

ZUZENDARIA: Permach Martin, Nerea

## LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan, Ikaskuntza-Zerbitzuaren metodologia erabiliz, adimen urritasuna duten pertsonen gizarteratzea sustatzeko proiektu bat garatu da, Real Sociedad Fundazioarekin eta ATZEGI elkartearekin elkarlanean. Saio pedagogiko inklusiboak diseinatu dira komunikazioa, emozioen kudeaketa eta talde-kohesioa lantzeko. Aldi berean, hezitzaile gisa ikaslearen prestakuntza pedagogikoa eta hausnarketa kritikoa sakontzeko aukera egon da, praktikan sortzen diren egoerei eta zailtasunei aurre eginez eta aniztasunarekiko jarrera inklusiboa sendotuz. Zerbitzuaren kalitatea zein ikaskuntza-prozesua ikuspegi integratzaile batetik aztertu ondoren, emaitzek erakutsi dute, prozesuan ikaslearen gaitasun profesional eta pertsonalak esanguratsuki garatu direla. Halaber, parte-hartzaileen autoestimua eta parte-hartze sozial aktiboa hobetu dira. Ondorioz, lan honek hezkuntza inklusiboaren bidez gizarte bidezkoago bat eraikitzeko eta aniztasuna aberastasun gisa ulertzeko aukera erakutsi du.



**Hitz-gakoak:** Ikaskuntza-zerbitzua, Adimen Urritasuna, Gizarte Inklusioa, Gaitasun Sozioemozionalak, Hezkuntza Inklusiboa.



## RESUMEN

En este Trabajo Fin de Grado, utilizando la metodología del Aprendizaje-Servicio, se ha desarrollado un proyecto para promover la integración social de las personas con discapacidad intelectual, en colaboración con la Fundación Real Sociedad y la asociación ATZEGI. Se han diseñado sesiones pedagógicas inclusivas para trabajar la comunicación, la gestión emocional y la cohesión de grupo. Al mismo tiempo, como educador se ha profundizado en la formación pedagógica y en la reflexión crítica del alumno responsable de proyecto, afrontando situaciones y dificultades que surgen en la práctica y reforzando una actitud inclusiva hacia la diversidad. Tras analizar la calidad del servicio y el proceso de aprendizaje desde una perspectiva integradora, los resultados muestran que en el proceso se han desarrollado significativamente las competencias profesionales y personales del alumno. Asimismo, se ha mejorado la autoestima de los participantes y la participación social activa. En consecuencia, este trabajo ha mostrado la oportunidad de construir una sociedad más justa a través de una educación inclusiva y de entender la diversidad como riqueza.



**Palabras clave:** Aprendizaje-Servicio, Discapacidad Intelectual, Inclusión Social, Competencias Socioemocionales, Educación Inclusiva.

**ABSTRACT**

In this End of Grade Work, using the methodology of the Service- Learning, a project has been developed to promote the social integration of persons with intellectual disabilities, in collaboration with the Royal Society Foundation and the ATZEGI Association. Inclusive pedagogical sessions have been designed to work on communication, emotional management and group cohesion. At the same time, as educators, it has been possible to deepen the student's pedagogical training and critical reflection, addressing the situations and difficulties that arise in practice and strengthening an inclusive attitude towards diversity. After analysing the quality of service and the learning process from an integrative perspective, the results show that the process has significantly developed the professional and personal skills of the student. There has also been an improvement in the self-esteem and active social participation of the participants. Consequently, this work has shown the opportunity to build a fairer society through inclusive education and to understand diversity as wealth.

**Key words:** Learning service, Intellectual Disability, Social Inclusion, Socio-Emotional Skills, Inclusive Education.

**AURKIBIDEA** **3**
**1. SARRERA** **4**
**2. MARKO TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA** **5**
2.1. Adimen urritasuna: kontzeptua, ezaugarriak eta behar espezifikoak 5
2.2. Adimen urritasuna eta gizarte inklusioa 6
2.3. Hezkuntza ez formaletik hezkuntza formalera 7
2.4. Hezkuntza berezia esparru ez-formaletan: praktikotasun eta berrikuntzarako aukera 9
2.5. Harreman osasuntsuak eta gatazkak 10
2.6. Kirolaren, bereziki futbolaren, ekarpena adimen urritasuna duten pertsonen garapenean 11
2.7. Adimen urritasuna dutenen pertsonekin komunikazioa lantzeko beharra 12
2.8. Hezkuntza komunitarioa 13
2.9. Erlazioa Intrapertsonala eta Interpertsonala Desgaitasuna Duten Pertsonen Artekoa 14
2.10. Ikaskuntza Zerbitzua (I+Z) 16
2.10.1.- Zer da Ikaskuntza Zerbitzua? 16
2.10.2.- Ikaskuntza Zerbitzuaren onurak 18
**3. HELBURUAK** **19**
**4. METODOA** **19**
4.1. Jarraitutako prozedura 19
4.2. Testuingurua 20
4.3. Parte-hartzaileak 20
4.4. Emandako Zerbitzua 21
4.5. Azterketa metodologikoa 25
4.6. Informazioa jasotzeko tresnak 26
4.7. Datuen analisia 27
**5. EMAITZAK** **29**
5.1. Prozesuan ikasitakoak 29
5.2. Zerbitzuaren inpaktua 36
**6. ONDORIOAK ETA EMAITZEN GAINEKO EZTABAIDA** **37**
**7. LANAREN MUGAK ETA HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK** **39**
**8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK** **39**
**9. ERANSKINAK** **41**
9.1 Kategorizazioa 41
9.2 Egunerokoa 42
9.3 Emandako zerbitzuak 59
9.4 Sortutako materiala 71
9.5 Pasatako ebaluazioak 85
9.5.1 Arduradunei pasatako ebaluazioa: 85
9.5.2 Jokalariei pasatako ebaluazioak: 94

## 1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan hau Ikaskuntza-Zerbitzuaren (I+Z) metodologiaren bidez eta Real Sociedad Fundazioaren eta ATZEGI elkartearen arteko lankidetzan garatu da. Hori horrela, adimen urritasuna duten pertsonekin eta hezkuntza ez-formalaren esparruan esku-hartze pedagogiko bat eraman da aurrera. Proiektua LaLiga Genuine programaren testuinguruan kokatzen da, eta helburua izan da komunikazioa, gatazken kudeaketa eta talde-kohesioa bezalako gaitasun sozioemozionalak lantzea, parte-hartzaileen garapen integrala sustatzeko.

(I+Z), Aramburuzabala et al.-en (2015) arabera, ikaskuntza akademikoa, garapen pertsonala eta gizarte-konpromisoa uztartzen dituen metodologia da, ikaslea aktore bihurtuz testuinguru errealetan. Halaber, Puig et al.-ek (2008) azpimarratzen dute I+Z proiektuek aukera ematen dutela bizipen pedagogiko esanguratsuak bizitzeko, ezagutza teorikoak gizarteari begira aplikatuz. Kasu honetan, proiektuak ikasle-irakasle roletik harago doan parte-hartze konprometitua eta gogoetatsua sustatu du, gizarte-eraldaketa helburu izanik.

Ildo horretan, Kim-ek eta Lee-ek (2023) egindako ikerketak ere nabarmendu dute I+Z bidezko prozesuaek eragina dutela desgaitasuna duten haurren garapenean. Zehazki, 12 asteko futbol-eskolan aplikatutako programak hobekuntza esanguratsuak ekarri zituen haien portaera emozional eta sozialean, arreta-defizita gutxituz eta egokitzapen pertsonala indartuz. Horrek erakusten du ikuspegi hau hezkuntza berezian txertatzeak, parte-hartzaile zein komunitatearen ongizatea aldi berean sendotzen duela.

Lan honek zuzenean erantzuten die Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren bi helburu nagusiri:

4. GIH – Kalitatezko hezkuntza: Lan honek inklusio hezitzailea sustatzen du adimen urritasuna duten pertsonekin, komunikazio inklusiboa, autoestimua eta bizitzarako funtsezko gaitasunak garatuz. Esku-hartzearen bidez, parte-hartzaileei aukera eskaini zaie euren erritmora egokituta ikasteko, beren indarguneak azaleratzeko eta taldean aktiboki parte hartzeko. Gainera, futbolaren bidez ikaskuntza esanguratsua eta bizitzarekin lotuta garatu da.

10. GIH – Desberdintasunak murriztea: Proiektu honen bidez, gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonek, kasu honetan adimen urritasuna dutenek, aukera berdintasunean parte hartu dute esparru komunitario batean. Harreman sozialen eta gatazken kudeaketaren lanketaren bidez, estigma sozialak gainditzeko eta talde barneko desberdintasunak berdintasunez tratatzeko espazio segurua sortu da.

Lan hau, beraz, ez da soilik praktika profesional baterako entrenamendua izan: hezitzaile gisa konpromiso sozialetik abiatutako esperientzia aberatsa izan da, non pertsonen arteko harremanek eta hezkuntza inklusiboak duten indarra lehen lerroan kokatu diren. Horrela, lan honen helburu nagusietatako bat, gizarte bidezkoago eta inklusiboago baten eraikuntzan ekarpena egitea izan da, benetako inpaktu soziala duen hezkuntza-esperientzia baten bidez.

Lanaren egiturak hurrengo atalak ditu: Lehenik, esparru teoriko eta kontzeptualaren azterketa egiten da; jarraian, esku-hartzearen diseinua, ezarpena eta metodologia azaltzen dira; eta azkenik, emaitzen azterketa, hausnarketak eta hobekuntza-proposamenak aurkezten dira, egindako lanaren eta bizipenaren ikuspegi integratzailetik abiatuta.

## 2. MARKO TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA

### 2.1. Adimen urritasuna: kontzeptua, ezaugarriak eta behar espezifikoak

Adimen urritasuna hainbat ikuspuntutatik azter daiteke, eta definizioa ez da soilik adimenaren murrizketara mugatzen, baizik eta eguneroko bizitzan eta gizarte testuinguruetan pertsona horiek bizi dituzten muga eta erronketara ere hedatzen da. Verdugo, Schalock eta Gómez (2012) egileen arabera, desgaitasun intelektuala adimen funtzionamenduan eta egokitzapen trebetasunetan izandako murrizketen bidez definitzen da, eta horiek bizitzako hainbat arlotan hala nola komunikazioa, autonomia pertsonala edo harreman sozialak eragin zuzena dute. Ke eta Liu-ek (2017) azpimarratzen dute definizio horretan ingurune sozialaren papera funtsezkoa dela, izan ere, faktore sozial eta kulturalek adimen desgaitasuna duten pertsonen aukeretan eta garapenean eragin handia dute.

Adimen urritasuna pertsonen garapenaren lehen fasean agertzen den egoera bat da, non funtzio intelektualetan eta egokitzapen portaeretan mugak agertzen diren. Verdugo, Schalock eta Gómez (2012) egileen arabera, adimen desgaitasuna pertsona baten adimen funtzionamenduan eta eguneroko bizitzako trebetasunetan (hala nola komunikazioa, gizarte interakzioa eta bizitza independentea) izandako murrizketekin lotzen da. Ez da soilik IQaren (adimen-kozientea. Pertsona batek arrazoitzeko, arazoak ebazteko eta ikasteko duen gaitasunaren neurri da.) arabera neurtzen, baizik eta pertsonaren egokitzeko gaitasunean eta autonomia mailan oinarritzen da.

Verdugo et al. (2012) autoreen arabera, desgaitasun intelektuala duten pertsonek hainbat ezaugarri eta premia espezifiko dituzte, eta horiek kontuan hartuta, euren garapen osoa sustatzeko ingurune egokituak eta laguntza-sistemak ezarri behar dira. Horrela, behar espezifikoak dituzten pertsonak izanik, euren erritmoa eta estiloa errespetatzen dituzten

inguruak ezinbestekoak dira ikaskuntza eta garapen pertsonalerako.

Verdugo et al. (2012) eta Amado et al. (2013) bat datoz esatean adimen desgaitasuna duten pertsonen garapen egokia lortzeko funtsezkoa dela laguntza egokia eskaintzea. Laguntza horrek barne hartzen du komunikazio augmentatiboa, hau da, ahozko hizkuntza osatu edo ordezkatzeko baliabideak erabiltzea (esaterako, irudiak, piktogramak edo gailu teknologikoak) hezkuntza egokitzapenak eta eguneroko errutina egonkor bat. Laguntza horien bidez, pertsonak bere trebetasunak garatzeko aukera du, eta horrek autoestimua eta gizartean parte hartzeko aukera areagotzen ditu.

Horregatik, ikuspegi integratzaile eta pertsonalizatu bat eskatzen du, non adimen urritasuna duten pertsonek aukera berdinak izango dituzten euren bizitza-proiektua garatzeko. Zentzu horretan, akonpainamendua egingo duten profesionalek pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako estrategiak diseinatu behar dituzte, beti ere, begirada inklusibo eta komunitariorik abiatuta. Booth eta Ainscow (2015) egileen arabera, inklusioa ez da soilik baliabide edo laguntza gehiago izatea, baizik eta sistemaren egokitzapena eta pertsonaren gaitasunen aitortza aktiboa. Horrekin bat eginez, Azorín (2018) azpimarratzen du ekitatearen ekologiak behar duela ikuspegi holistiko bat, non hezkuntza-eragile guztiek elkarrekin jarduten duten, pertsonen gaitasunak balioetsiz eta ingurunea moldatuz. Horrelabatetik;. hau da, pertsona hauen gaitasunetan oinarritutako gizarte ikuspegi bat eraikitzea izango da erronka nagusietako bat.

## 2.2. Adimen urritasuna eta gizarte inklusioa

Gaitasun sozialak eta gatazken kudeaketa ikuspegi inklusibo eta berdinzale batetik lantzea ezinbestekoa da adimen urritasuna duten pertsonen integrazio eta parte-hartze sozial eraginkorra bermatzeko. Ainscow-ren eta Booth-en (2011) arabera, hezkuntza eta gizarte sistemek aniztasunari modu aktiboan erantzun behar diote, pertsona guztien inklusio errealerako oinarriak ezarriz. Hori horrela, Verdugo et al. (2012) nabarmendu dute desgaitasun intelektuala duten pertsonen parte-hartze osoa lortzeko, beharrezkoa dela gaitasun sozialak garatzeko aukera berdintasunezkoak eta baliabide errealak eskaintzea. González-Gil, Martín-Pastor eta Castro (2019) egileen arabera, desgaitasuna duten pertsonen diskriminazio historikoa gizartearen ikuspegi murriztaile eta estigmatizatzaileetan oinarritu da, eta horrek inklusioaren aurkako oztopo sendoak sortu ditu gaur egun arte, eta horrek agerian uzten du gizartearen eta hezkuntza sistemaren rola funtsezkoa dela bizitza sozial eta pertsonalean eragin positiboa izateko. Hortaz, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak errespetatuko dituen ikuspegi batetik espazio inklusiboak sortzea eta ekitatezko hezkuntza-politikak garatzea ezinbesteko baldintza da gizarte kohesionatu eta bidezko baterantz aurrera egiteko.

Adimen urritasuna hainbat ikuspuntutatik azter daiteke, eta definizioa ez da soilik adimenaren murrizketara mugatzen, baizik eta eguneroko bizitzan eta gizarte testuinguruetan pertsona horiek bizi dituzten muga eta erronketara ere hedatzen da. Verdugo, Schalock eta Gómez (2012) egileen arabera, desgaitasun intelektuala pertsonaren adimen funtzionamenduan eta egokitzapen trebetasunetan izandako murrizketen bidez ulertzen da, eta horiek bizitzako hainbat arlotan hala nola komunikazioa, autonomia pertsonala edo harreman sozialak eragin zuzena dute. Ke eta Liu-ek (2017) azpimarratzen dute definizio horretan ingurune sozialaren papera funtsezkoa dela, izan ere, faktore sozial eta kulturalek adimen desgaitasuna duten pertsonen aukeretan eta garapenean eragin handia dute.

Bizi-kalitatearen ereduan oinarrituta (Schalock et al., 2002; Verdugo et al., 2012), adimen desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak eta nahiak garatzeko, beharrezkoa da inguruneak laguntza eta baliabide egokiak eskaintzea. Ez da nahikoa presentzia fisikoa eskaintzea gizartean; parte-hartze erreal eta esanguratsua lortu behar da. Horri gehitzen dio Caride (2020) desgaitasuna duten pertsonen inklusioa ez da soilik eskolaren esparruan garatu behar, baizik eta komunitatearen eta gizarte-erakundeen arteko lankidetzan oinarritu behar da, ikuspegi komunitarioa eta soziala kontuan hartuta.

Alabaina, inklusioa ez da berez gertatzen, horregatik hezkuntza testuinguruan eta komunitateanesaterako, prestakuntza eta jarrera positiboak behar dira Rosero-Calderón et al.-en (2021) esanetan. Horrela, irakasleek gaitasun espezifikoak garatu behar dituzte desgaitasuna duten ikasleen beharrei erantzuteko, eta prestakuntza horrek hezkuntza inklusiboan eragingo du positiboki. Era berean, Florian eta Black-Hawkins–ek (2011) diote pedagogia inklusiboa ez dela soilik ikasle berezietarako hezkuntza, baizik eta guztientzako kalitatezko hezkuntza dela, hain zuzen ere, aniztasuna oinarritzat hartzen duena eta ikasle guztien parte-hartzea eta garapena bermatzen duena..

Hortaz, hezkuntza eta gizarte inguruneek pertsona guztien garapen osoa sustatzeko baldintzak eskaini behar dituzte, eta horrek ikuspegi integralago baten beharra eskatzen du. Izan ere, egileek adierazten dute gizarte inklusioa ikuspegi integral batetik landu behar dela (Amado et al.,2013; Verdugo et al.,2012). Horrela, pertsona bakoitzaren gaitasun eta nahiak kontuan hartzeaz gain, testuinguru sozialak eta politikoak ere egokitu behar dira, parte-hartze esanguratsua eta berdintasunezkoa sustatzeko.

### 2.3. Hezkuntza ez formaletik hezkuntza formalera

Hezkuntza eragile nagusietako bat da gizarte inklusibo baten eraikuntzan, eta, horregatik, funtsezkoa da inklusioa helburu duen ikuspegi zabal eta integratzailea ezartzea

hezkuntza-esparru guztietan. Ikuspegi hori gauzatzeko, ezin da hezkuntza formala soilik hartu oinarri; hezkuntza ez formalak ere aukera paregabeak eskaintzen ditu aniztasunari erantzuteko eta pertsona guztien garapen osoa sustatzeko. Zentzu horretan, hurrengo atalean aztertuko da nola uztartzen diren hezkuntza ez formala eta formala desgaitasuna duten pertsonen inklusio sozialerako.

Hezkuntza ez formala eta formala bi esparru osagarri dira, eta biak dira funtsezkoak desgaitasuna duten pertsonen inklusio sozialerako. Caridek (2020) adierazten du hezkuntza ez formalak aukera ematen duela ikasleek beren testuinguru soziokulturaletan parte hartzeko, eta, horren bidez, beren gaitasun sozial eta pertsonalak garatzeko. Era berean, Ramírez-Íñiguezek (2020) azpimarratzen du hezkuntza ez formala ezin dela baztertu hezkuntza sistematik, maiz ikasleen beharrak eta interesak ezin baitira hezkuntza formalaren barruan asetu. Hori horrela, biak uztartzeak ikasleen garapen integrala ahalbidetzen du, hezkuntza inklusiboa benetan gauzatzeko aukera emanez.

Bestalde, Criado-Aguilera eta Pérez-Díaz (2022) autoreek nabarmendu dute ikaskuntza ez dela soilik ikasgelan gertatzen; ikaskuntza prozesuak testuinguru sozialetan ere gertatzen direla ulertzea funtsezkoa dela, batez ere desgaitasuna duten pertsonen kasuan. Ildo horretatik, hezkuntza ez formala espazio baliotsua da gaitasun sozialak garatzeko, eta hezkuntza formalarekin konbinatzean, inklusio prozesuak sendoagoak eta eraginkorragoak izaten dira. Horregatik, aukera interesgarria litzateke bi hezkuntza moten arteko sinergia ematea hezkuntza politiketan.

Caridek (2020) dioenez, hezkuntza ez formalak, besteak beste,testuinguru errealetan ikasteko aukera areagotzen du, eta, horrela, ikasleek beren gaitasunak modu praktikoan garatzen dituzte eta esanguratsuak suertatzen zaizkie, sozialki baliagarriak direla konturatzen direlako. Gainera,Puig et al.-ek (2008) proposatzen duten moduan, ez da nahikoa hezkuntza ez formala esperientzia gisa hartzea, baizik eta planifikatutako eta ebaluatutako ekintza sistematiko gisa ulertu behar da, hezkuntza balioak transmititzeko eta gizartean parte aktibo bihurtzeko.

Adimen urritasuna duten pertsonen kasuan ere, Ramírez Íñiguez (2020) eta Tapia (2010) bat datoz esatean hezkuntza ez formalak eta formalak elkarren osagarri izan behar dutela, horiek aukera berdintasunean parte hartu ahal izateko. Hala, esparru ez formalek ekintza esperientzialen bidez ikaskuntza errazten duten bitartean, hezkuntza formala egitura eta curriculumaren bidez balio akademikoak sistematizatzen ditu. Bi dimentsioen arteko lankidetza estrategikoak inklusio eraginkorra bermatzen du.

### 2.4. Hezkuntza berezia esparru ez-formaletan: praktikotasun eta berrikuntzarako aukera

Horrenbestez, hezkuntza ez-formalaren eta formalaren arteko sinergiak ez dira soilik ikaskuntza-prozesuetan islatu behar, baizik eta hezitzaileen prestakuntzan bertan ere kontuan hartu behar dira. Izan ere, prestakuntza egokirik gabe, ezin da bermatu ez formaletan eskaintzen den aniztasunari erantzun egokia, ezta espazio horietan sortzen diren aukera inklusiboak baliatu ere. Ondorioz, hurrengo atalean aztertuko da nola garatu behar den irakasleen prestakuntza desgaitasuna duten ikasleen behar espezifikoetara egokitzeko, eta nola uztartu daitezkeen ikuspegi formala eta ez-formala prestakuntza-prozesuan bertan.

Hezkuntza berezia, Azorín (2017) egilearen arabera, aniztasunari erantzuteko hezkuntza-sistemaren antolaketak eta praktikek sortzen duten eremua da, non helburua ikasle guztien inklusioa eta garapen pertsonala bermatzea baita.

Hezkuntza bereziko irakasleek prestakuntza zehatza behar dute desgaitasunak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko. Marcelo eta Vaillant (2015) egileen arabera, irakasle batek bere praktika garatzeko gaitasun teknikoak ez ezik, dimentsio etiko eta sozialak ere barneratu behar ditu. Irakasleen prestakuntzak ezinbestean jaso behar du malgutasuna, enpatia eta baliabide pedagogiko berritzaileak erabiltzeko prestasuna. Prestakuntza horrek ikasleen eskubideen errespetuan eta haien garapen osoan oinarritu behar du.

Verdugo et al. (2012) autoreek azpimarratzen dute prestakuntza emozionala eta sozialean oinarritutako trebetasunak ezinbestekoak direla: talde-kudeaketa, gatazken konponbidea eta aniztasunarekiko jarrera irekia. Horrez gain, prestakuntza praktikoa benetako kasuetan oinarrituta ezinbestekoa da teorietan oinarritutako prestakuntzarekin batera.

Hau horrela, irakasleen etengabeko prestakuntza eta hausnarketa profesionala ezinbestekoak dira praktika inklusiboak garatzeko. Horretarako, unibertsitateek eta hezkuntza-erakundeek lankidetza sustatu behar dute, irakasleek baliabide eta gaitasun berriak garatu ahal izan ditzaten eta desgaitasunak dituzten ikasleen alde lan egitean konpromiso sendoa izan dezaten. Verdugo et al. (2012) autoreek azpimarratzen dute etengabeko prestakuntza eta lankidetza profesionala funtsezkoak direla irakasleen gaitasun inklusiboak indartzeko, eta horrek aukera ematen du aniztasunari modu eraginkorrean erantzuteko.

Prestakuntza egokiak funtsezko zeregina jokatzen badu praktika inklusiboak garatzeko, hezkuntza ez-formalak aukera eraginkorra eskaintzen du gaitasun horiek modu praktiko eta testuinguratuan lantzeko, batez ere desgaitasun intelektuala duten pertsonen kasuan.

Hezkuntza ez-formalak aukera ematen du jarduera hezitzaileak ikasleen behar eta interesetara egokituta garatzeko, batez ere desgaitasun intelektuala duten pertsonen kasuan. Ramírez Íñiguez (2020) dioenez, espazio ez-formalek testuinguru egokituak eskaintzen dituzte, non ikaskuntza modu esperientzialean eta sozialki esanguratsuan gertatzen den. Honek malgutasuna eta ekintza sortzaileak garatzeko aukera eskaintzen du.

Caride (2020) egileak adierazten du hezkuntza ez-formala praktikan oinarritutako ikaskuntza dela, non pertsonaren autonomia eta parte-hartze soziala sustatzen diren. Horrela, desgaitasun intelektuala duten pertsonek espazio horietan euren erritmoan parte hartu eta ikasi dezakete, presiorik gabe. Espazio hauek tailer praktikoak, gizarte-proiektuak edo kirol eta kultura jarduerak izan daitezke.

Puig et al. (2008) eta Tapia (2010) egileen arabera, hezkuntza ez-formalak aukera ematen du balioak, gaitasun sozialak eta bizitzarako trebetasunak lantzeko, curriculum akademiko estandarrak nekez lantzen dituen elementuak barne. Horregatik, hezkuntza berezian, ez-formaltasuna aukera baliotsua da metodo tradizionalek ez dituzten dimentsioak lantzeko.

Azkenik, hezkuntza ez-formalaren bidez sortzen diren giro ludiko, parte-hartzaile eta malgu horiek funtsezkoak dira ikaskuntza prozesua aberasteko. Horietan, ikasleek euren burua adierazteko, esperimentatzeko eta gizartean parte hartzeko aukera dute. Hortaz, hezkuntza ez-formala ez da osagarri hutsa, baizik eta hezkuntza bereziaren osagai estrategiko bat.

## 2.5. Harreman osasuntsuak eta gatazkak

Gatazka bizitza sozialaren parte da, eta pertsona guztiek, desgaitasuna izan edo ez, gatazkei aurre egin behar izaten diete. Hori bereziki garrantzitsua da hezkuntza ez-formaleko esparruetan ere, non elkarrekintza sozialak maizago eta espontaneoago gertatzen diren, eta non gaitasun emozionalak, harremanak eta gatazken kudeaketa modu esperientzialean lantzeko aukera zabala dago. Ramírez Íñiguez (2020) egileak azpimarratzen duen bezala, espazio ez-formalek ikaskuntza sozial eta esanguratsua ahalbidetzen dute, eta horrek aukera paregabea eskaintzen du gatazkak modu osasuntsuan lantzeko. Gajardo, Ulloa eta Nailen (2017) arabera, gatazkak denboran mantendu ohi diren egoerak dira, askotan estres eta ezintasuna sortzen dutenak, baina egoki kudeatuz gero, pertsonen arteko ulermena eta ikaskuntza soziala sustatzeko aukera ere izan daitezke.

Hala ere, adimen desgaitasuna duten pertsonen kasuan, gatazkak konpontzeko estrategiak garatzeko zailtasunak agerikoagoak izan daitezke, zeren estresa eta bestelako emozio eta sentipenak kudeatzeko estrategiak garatuta ere, askotan zailtasunak dituzte horiek modu

egokian aplikatzeko (Barquín-Cuervo et al.,2018). Hori dela eta, eguneroko bizitzan erabilgarriak izango diren gaitasunak sustatu behar dira, gatazken aurrean modu osasuntsuan eta autonomoan erantzuteko.

Fernández-Pérezek (2020) azpimarratzen du gatazken aurrean harreman osasuntsuak sustatzea funtsezkoa dela, bai hezkuntza testuinguruan, bai gizartean oro har. Gainera, Florian eta Black-Hawkins-en (2011) arabera, gatazken kudeaketa hezkuntza prozesuaren parte izan beharko litzateke, batez ere ikasleen arteko interakzioak eta kohesio soziala sustatzeko. Horrela, ikaskuntza sozioemozionalaren bidez, ikasleek enpatia, errespetua eta autoerregulazioa landu daiteke, eta horrek gatazken aurrean erantzun asertiboagoak izatea ahalbidetzen du.

Era berean, autore desberdinek (Amado et al.,2013; Verdugo et al. (2012) azpimarratzen dute gizarte eta komunitate testuinguruetan gatazken kudeaketa inklusiboak aukera ematen duela desgaitasuna duten pertsonek parte-hartze osoagoa izateko. Testuinguru horietan, elkarrekiko errespetuan eta elkarrizketan oinarritutako estrategiak ezarri behar dira, non parte hartzen duten guztien iritziak kontuan hartzen diren. Gatazken aurrean, elkartruke demokratikoak eta adostasunak bultzatzea bidea izan daiteke inklusio soziala indartzeko.

Barquín-Cuervo et al.-ek (2018) eta Razquin Planok (2021) bat egiten dute esatean gatazken kudeaketak ez duela helburu soilik gatazkak saihestea, baizik eta pertsonen artean elkarrekiko ulermena, autonomia eta gaitasun sozialak garatzea. Horretarako, beharrezkoa da prestakuntza espezifikoa eta hezkuntza emozionala sistematikoki lantzea, pertsona bakoitzak bere emozioak kudeatzeko eta besteenekin modu errespetuzkoan erlazionatzeko baliabideak izan ditzan.

### 2.6. Kirolaren, bereziki futbolaren, ekarpena adimen urritasuna duten pertsonen garapenean

Kirol inklusiboa, integrazio eta garapen pertsonalerako gunea izateaz gain, gatazkak kudeatzeko agertoki pribilegiatu gisa agertzen da. Desgaitasuna duten eta ez duten pertsonak kirol-taldeetan bizitzeak askotariko ikuspegiak, beharrak eta interakzio-moduak sortzen ditu, eta horrek, ezinbestean, egoera gatazkatsuak eragin ditzake. Hala ere, oztopo izatetik urrun, gatazka horiek aukera paregabea dira ikasteko eta gizartea eraldatzeko, behar bezala kudeatzen direnean.

Latorreren (2025) hitzetan garrantzitsua da talde inklusiboei gatazkak konpontzeko tresna eta protokolo espezifikoak ematea. Ildo horretan, bitartekaritza funtsezko estrategia bihurtzen da.

Bitartekariaren figuraren bidez – ahal dela desgaitasunean eta talde-dinamiketan trebatua –, elkarrizketa errazten da, enpatia sustatzen da eta taldeko kide guztien dibertsitate funtzionala errespetatzen duten irtenbide adostuak bilatzen dira. Praktika horrek, eztabaida puntualak konpontzeaz gain, konfiantza eta errespetu giroa sortzen laguntzen du, funtsezko elementuak baitira edozein proiektu inklusiboren arrakastarako.

Azken batean, kirol inklusiboak eta gatazken kudeaketak binomio banaezina osatzen dute talde kohesionatuak, erresilienteak eta sozialki arduratsuak eraikitzeko. Izan ere, kirol inklusiboa gatazkak konpontzeaz gain, hazkunde pertsonal eta kolektiborako tresna boteretsu bihurtzen da. Hala, kirol inklusiboko gatazken kudeaketa positiboak, zuzeneko parte-hartzaileei ez ezik, gizarte toleranteagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa sortzen laguntzen du.

Ildo horretatik, kirol jarduera erregularrak, eta bereziki futbola, osasun fisikoaz harago doazen onurak eskaintzen ditu adimen urritasuna duten pertsonen kasuan. Special Olympics (2020) erakundearen arabera, kirolak aukera ematen die pertsona horiei autoestimua handitzeko, errutina osasuntsuak garatzeko eta taldean jarduteko gaitasunak sendotzeko. Jarduera fisikoa, gainera, eguneroko estresari aurre egiteko estrategia natural bihurtzen da.

León eta Hernándezen (2019) lanek erakutsidute futbolean parte hartzeak komunikazio gaitasunak, emozioen kontrola eta arauak errespetatzeko joera sustatzen dituela. Horrez gain, talde batean jokatzearen bidez ikas daitezke erantzukizuna, talde-lana eta gatazken kudeaketa. Kirolaren bidez, askotan oharkabean, gizarteratze prozesuak indartu egiten dira, eta harreman sozial osasuntsuak sortzen dira.

Horri gehitzen zaio kirol jardueretan parte hartzeak aukera ematen diela desgaitasunak dituzten pertsonei euren gaitasunak erakusteko, eta gizarteak haiekiko dituen aurreiritziak apurtzeko (Amado et al. (2013); Verdugo et al. (20212).

Futbol egokituaren edo kirol inklusiboaren bidez, adimen urritasuna duten pertsonek beraien garapen fisiko eta emozionala landu dezakete, eta parte-hartze aktiboa erraztu. Ez hori bakarrik, baizik eta praktika honek komunitateko beste kideekin harremanak sortzeko aukera eskainiko die, beti ere elkarrekiko errespetuan oinarritutakoak.

### 2.7. Adimen urritasuna dutenen pertsonekin komunikazioa lantzeko beharra

Komunikazioa lantzea ezinbestekoa da gatazken kudeaketa lantzeko garaian, are gehiago adimen desagaitasuna duten pertsonekin. Izan re, komunikazioa funtsezko tresna da adimen urritasuna duten pertsonen inklusio soziala bermatzeko. Komunikazio egokia ez da soilik

informazioa trukatzea, aldiz, pertsonen arteko ulermena, konfiantza eta errespetua eraikitzeko prozesua da. Razquin Planok (2021) azaltzen du komunikazio inklusiboak hizkera argia, erraza eta egokitua izan behar duela, desgaitasun intelektuala duten pertsonen beharretara moldatua. Bestalde, (Verdugo et al., 2012) egileen arabera, komunikazioaren kalitateak eragin zuzena du desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatean, eta, bereziki, euren autonomia eta komunitatean parte hartzeko gaitasunean. Horregatik, ezinbestekoa da komunikazio estrategia inklusiboak sistematikoki txertatzea hezkuntza eta gizarte testuinguruetan.

Komunikazioa ez da soilik gaitasun tekniko bat, eta zentzu horretan ikuspegi sozial eta afektibo bat ere behar du. Hala nabarmentzen dute Razquin Planok (2021) eta Verdugo et al. (2012), komunikazio prozesuetan emozioen eta harremanen dimentsioa kontuan hartzea ezinbestekoa dela azpimarratzen dutenean Hori horrela, hizkera sinplea erabiltzeaz gain, entzute aktiboa, gorputz-hizkuntza eta komunikazio ez-linguistikoaren erabilera ere kontuan hartu behar dira, pertsona bakoitzaren komunikazio estiloa eta gaitasuna errespetatuz.

Era berean, komunikazio inklusiboaren estrategiek, hala nola piktogramen erabilerak, hizkuntza erraztuak eta komunikazio augmentatiboak, aukera ematen dute adimen urritasuna duten pertsonek euren iritzia modu autonomo eta errespetuz adierazteko. Horrelako baliabideek parte-hartze demokratikoa, autoerrepresentazioa eta harreman osasuntsuak sustatzen dituzte, Razquin Planoren (2021) arabera, eta horrek gizarte eta hezkuntza testuinguruetan ahalduntzea bultzatzen du.

Gainera, Florian eta Black-Hawkins-ek (2011) gogoratzen digute komunikazio estrategiek ez dutela soilik pertsonen arteko harremanetan eragina, baizik eta ikaskuntza prozesuan ere funtsezko eragina dutela. Ikasgelan, komunikazio inklusiboa bermatzea funtsezkoa da ikasleen partaidetza aktiboa eta berdintasunezkoa ahalbidetzeko. Komunikazio argi eta egokituak ikasle guztiek, beren iritziak adierazi eta ikaskuntza prozesuan aktiboki parte hartzeko aukera ematen du.

Horrenbestez, ingurune inklusiboetan komunikazio estrategia egokiak garatzea ezinbestekoa da Verdugo et al., (2012) Eta horrek barne hartzen ditu prestakuntza programak, hizkuntza sinplearen erabilera, baliabide bisualak eta teknologia laguntzaileak. Komunikazio inklusiboaren aldeko praktika horiek errotzen direnean, adimen urritasuna duten pertsonen ahalduntzea eta parte-hartze soziala nabarmen handitzen dira.

### 2.8. Hezkuntza komunitarioa

Adimen urritasuna duten pertsonekin komunikazioa lantzeko beharra agerian geratzen da

testuinguru guztietan, eta horrek zuzenean eramaten gaitu hezkuntza komunitarioaren garrantziaz hausnartzera. Izan ere, hezkuntza komunitarioaren baitan, komunikazio estrategia inklusiboak ezinbesteko bihurtzen dira, bereziki desgaitasun intelektuala duten pertsonen parte-hartze aktiboa bermatu nahi denean. Verdugo et al. (2012) adierazten dutenez, ingurune egokitu eta irisgarrietan, pertsona guztiek beren burua modu seguru eta eraginkorrean adierazteko aukera izan behar dute, hori baita bizitza independente eta parte-hartzaile baten oinarria. Horren osagarri, Florian eta Black-Hawkins-ek (2011) gehitzen dute, hezkuntza komunitario inklusiboa eraikitzeko, irakasleek, familiek eta komunitateko beste kideek komunikazio irekia eta eskuragarria sustatu behar dutela, non elkarrekintza eta entzute aktiboa erdigunean jartzen diren.

Komunikazio inklusiboaren estrategiak hezkuntza esparrutik haratago doaz, eta gizarte osoaren esparruan aplikatu behar dira. Horregatik, ezinbestekoa da komunitate osoak kontzientzia hartzea eta horretarako prestakuntza eskaintzea, besteak beste, balioetan oinarritutako komunikazio bat garatzeko. Amado et al.-en (2013) arabera, estrategia horiek ezartzeak elkarbizitza hobetzen du eta parte-hartze sozial inklusiboagoa ahalbidetzen du. Gainera, Verdugok et al.-ek (2012) nabarmendu moduan, komunikazioa da gizarteratze prozesuaren ardatz nagusietako bat, eta horrek tokian tokiko sare sozial eta hezitzaileen inplikazioa eskatzen du.

Hezkuntza komunitarioaren esparruan, ezinbestekoa da espazio seguru eta errespetuzkoak sortzea, non desgaitasun intelektuala duten pertsonak entzunak eta ulertuak sentituko diren. Horretarako, estrategia didaktikoek inklusibitatea bermatu behar dute eta, aldi berean, balioetan hezteko aukera eskaini. Amado et al. (2013) eta Razquin Plano (2021) ados daude ikuspegi honekin, eta defendatzen dute komunitate osoaren parte-hartze aktiboa beharrezkoa dela komunikazio oztopoak hautsi eta elkarrekiko ulermenean oinarritutako gizarte bat eraikitzeko. Egile horien arabera, ingurune inklusiboek pertsona guztien adierazpen askatasuna eta ahalduntzea erraztu behar dituzte, horiek gizarte kohesionatuago baterako oinarri bihurtuz.

### 2.9. Erlazioa Intrapertsonala eta Interpertsonala Desgaitasuna Duten Pertsonen Artekoa

Gatazken kudeaketa eta komunikazioarekin batera, harremanak, bere horretan, lantzea, ere, ezinbestekoa da adimen urritasuna duten pertsonekin. Kasu honetan, harreman intraprestonalak eta interpertsonalak bereizi baharko ditugu.

Harreman intrapertsonalak pertsona bakoitzaren buruarengan duen pertzepzioarekin,

autoirudiarekin eta emozioen kudeaketarekin lotuta daude, eta desgaitasun intelektuala duten pertsonek esparru honetan erronka nabarmenak izaten dituzte. Erronka horien artean daude, besteak beste, autoestimua baxua izatea, euren gaitasunekiko zalantzak edukitzea eta beren emozioak identifikatu edo modu egokian adierazteko zailtasunak. Halako egoerek zuzenean eragiten dute haien ongizate psikologikoan eta gizartearekiko parte-hartze aktiboan. Fernándezek (2014) adierazten du desgaitasuna duten pertsonen autoestimua lantzea ezinbestekoa dela, euren burua modu positiboan ikusteko eta autonomia handiagoz jarduteko. Horri lotuta, Martínezek eta Garcíak (2015) nabarmentzen dute norberaren balorazio positiboa dela gizartean harreman osasuntsuak eraikitzeko lehen urratsa.

Interpertsonaleko harremanek, bestalde, pertsona horiek ingurukoekin duten interakzioan dute eragina, eta, horren baitan, komunikazio egokia, enpatia eta ulermena funtsezkoak dira. Razquin Planok (2021) eta Florian & Black-Hawkins-ek (2011) bat egiten dute esaten dutenean harreman egonkor eta aberasgarriak garatzeko, inguruneak baldintza egokiak eskaini behar dituztela: segurtasuna, errespetua eta parte-hartze aktiboa sustatuz. Horretarako, hezkuntza komunitateak eta familiak rol garrantzitsua betetzen dute, bizikidetza-ereduak eskaintzen baitituzte. Adibidez, familiek seme-alabekin gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko jarrerak erakusten dituztenean, edo irakasleek ikasgelan emozioak partekatzeko gune seguruak sortzen dituztenean, harreman osasuntsuen oinarriak ezartzen dira. Halaber, tutoretza-saioetan elkarrekiko errespetua, lankidetza eta entzute aktiboa lantzen diren dinamika parte-hartzaileek harreman horien sendotasuna bultzatzen dute.

Gizarte-ingurunean, adimen urritasuna duten pertsonen harreman sozialak askotan mugatuta daude estigmak eta komunikazio-oztopoak direla eta. Verdugo et al. (2012) eta Amado et al. (2013) autoreek nabarmendu dute beharrezkoa dela jendartea sentsibilizatzea, estereotipo negatiboak hausteko eta desgaitasuna duten pertsonak gizarteko parte aktibo gisa ulertarazteko. Zentzu honetan, komunikazio trebakuntza, elkarbizitza esperientziak eta taldeko dinamika positiboak oso baliagarriak izan daitezke.

Era berean, Martínez eta Garcíaren (2015) arabera, harreman osasuntsuak eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako interakzioak garatzea aukera paregabea da adimen desgaitasuna duten pertsonentzat euren autonomia, segurtasun emozionala eta bizi-kalitatea indartzeko. Izan ere, harreman intrapertsonal sendoek eta harreman sozial aberasgarriak izateak pertsonaren garapen pertsonala eta soziala sustatzen du (Fernández,2014)

### 2.10. Ikaskuntza Zerbitzua (I+Z)

### 2.10.1.- Zer da Ikaskuntza Zerbitzua?

(I+Z) esperientzia pedagogiko eta sozial eraldatzaile gisa ulertzen da, non ikasleek gizartearen premia errealei erantzuten dieten, beraien ikaskuntza prozesuan parte aktibo bihurtuz. Aramburuzabala et al.-en (2015) arabera, IZ garapen pertsonala, ikaskuntza akademikoa eta erantzukizun zibikoa uztartzen dituen metodologia da. Horrek, ikasleari aukera ematen dio ezagutza testuinguru errealetan aplikatzea, eta, aldi berean, gizarte bidezkoago eta parte-hartzaileago baterako konpromisoa hartzea. Puig et al.-ek (2011), ikuspegi beretik, nabarmendu dute hezkuntza eta gizarte arteko zubi gisa funtzionatzen duela IZk, balio sozialak eta ezagutzak uztartuz.

Hori horrela izanik, erronka pedagogiko honen definizioak hiru ezaugarri nagusi biltzen ditu, Tapiaren (2010) arabera. Lehenik, protagonismo aktiboa aipatzen da, non jardueraren protagonistak haurrak, nerabeak edo gazteak diren, baita helduak ere, hezkuntza talde formal edo ez-formalekin lagunduta. Bigarren ezaugarria zerbitzu solidarioa da, komunitate baten behar erreal eta sentituei erantzuteko diseinatua. Jarduera horiek parte-hartzaileen adinari eta gaitasunei egokituak izan behar dute, eta komunitateko arazo espezifikoak konpontzen laguntzera bideratuak. Azkenik, jakintzak eskuratzeko planifikatutako ikasketen dimentsioa agertzen da; proiektuak curriculumeko edukien ikaskuntza esplizituki artikulatzen du, ikasleek bizipen pedagogiko esanguratsu baten bidez ezagutzak barnera ditzaten.

(I+Z) egiturari dagokionez, modu eraginkorrean garatu nahi bada, beharrezkoa da proiektuaren planifikazio egokia egitea, hasierako ideia formulaziotik amaierako ebaluaziora arteko prozesu osoa kontuan hartuz (Gamito, 2022) Horretarako, funtsezkoa da pausoen antolaketa sistematikoa, lana ordenatua eta koherentea izan dadin. Puig et al.-en(2008) arabera, etapa bakoitza zehazki identifikatzeak eta sekuentzia logiko batean kokatzeak proiektuaren garapen arrakastatsua bermatzen du, bai ikaskuntza mailan bai komunitateari emandako zerbitzuaren kalitatean.

Autorearen arabera, (I+Z)  barruan hiru atal nagusi bereiz daitezke: prestakuntza, exekuzioa eta ebaluazioa. Era berean, atal horiek zazpi etapa sekuentzialetan antolatzen dira, eta etapa bakoitzak bere garrantzia eta intentsitatea izango du proiektuaren izaeraren arabera. Hau da, proiektu jakin batzuek fase zehatz batzuetan arreta handiagoa eskatuko dute, eta beste batzuetan, fase batzuk osagarri gisa geratuko dira. Horrela, malgutasuna eta egokitzapena uztartzen dira proiektuaren garapenean (Puig et al., 2008). Ondorengo taulan autoreek propostzen dituzten etapak jasotzen dira.

**1. taula**

*Ikaskuntza Zerbitzuko etapak*

| Etapak | Izena | Deskribapena |
|---|---|---|
| 1. etapa | Zirriborroaren garapena | Ikaskuntza-zerbitzu proiektu baten lehen urratsa ideia erakargarri baten identifikazioa da. Ideia hori landu ondoren, erakundeko zuzendaritza taldearekin elkarlanean erabakitzen dira proiektua gauzatzeko une eta espazio egokienak. |
| 2. etapa | Erakunde sozialekin harremanak. | (I+Z) garapenerako, ezinbestekoa da parte hartuko duten erakundeen, hartzaileen eta bestelako agenteen arteko elkarlana ezartzea, proiektua modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko. Etapa honen amaieran, eragile guztiek euren inplikazioa eta konpromisoa jasotzen dituen akordio idatzi bat sinatuko dute. |
| 3. etapa | Plangintza | Fase honetan, proiektua martxan jartzeko oinarri izango den dokumentua prestatu behar da. Hasierako planifikazioak ez du zertan guztiz bat etorri gero gauzatuko denarekin, aldaketak sor daitezkeelako. Etapa amaitzean, proiektuak bere izen propioa eduki behar du identifikazio argia izateko. |
| 4. etapa | Prestakuntza | Fase honetan proiektuaren diseinua definitzen hasiko da, ikasleen ekarpenak eta proposamenak kontuan hartuta. Etapa amaitzerakoan, komeni da ikasleek sortutako baliabideren bat izatea: adibidez mural bat edo antzeko lan grafiko bat, proiektuaren oinarriak eta helburuak irudikatzeko. |
| 5. etapa | Martxan jartzea | Proiektua exekutatzen hasten denean, hasieran aurreikusi ez ziren egoerak sor daitezke. Horregatik, |

| | | |
|---|---|---|
| | | etapa honetan, jarduera garatzen den heinean, hasierako plangintza egokitu eta hobetu behar da. Fasearen amaieran, egindako lanaren isla izango duen dokumentu edo material bisual bat prest egon beharko da. |
| 6. etapa | Hartzaileen ebaluazioa | Fase honetan zerbitzua jaso duten pertsonek balorazio bat egingo dute, eta horretarako bi aspektu nagusi aztertuko dira: ikasitakoa eta eskainitako zerbitzuaren kalitatea. Etapa amaieran, gomendagarria da ikasleek sortutako hainbat baliabide edukitzea, hala nola txosten idatzi bat edo ikus-entzunezko grabazio bat, prozesuaren laburpen gisa. |
| 7. etapa | Zerbitzuaren bultzatzaileen ebaluazioa | Azken fase honetan, zerbitzua eman duten pertsonek hausnarketa eta ebaluazio labur bat egin behar dute prozesu osoari buruz. Etapa amaitzeko, proiektuaren garapen osoa jasoko duen memoria sintetiko bat prestatu beharko da, eta horri esker egindako lana partekatu eta erreferentiza moduan erabili ahal izango da etorkizunean. |

*Iturria: egileak eginda*

### 2.10.2.- Ikaskuntza Zerbitzuaren onurak

(I+Z) aplikazioak onura anitz eskaintzen dizkie proiektuan inplikatutako agente guztiei, ikaskuntza eta parte-hartzea uztartzen dituen prozesuaren bidez. Rubiok (2007) azpimarratzen duen moduan, protagonistentzat onura nagusiena motibazio akademikoaren igoera da, ikasten dutenaren zentzua eta aplikagarritasuna esperimentatuz. Ikaskuntza ez da soilik ezagutza teorikoen transmisioa, baizik eta norberaren garapenean eta gizartearekiko konpromisoan errotutako prozesu dinamikoa.

Bestalde, hezkuntza-erakundeen ikuspegitik, (I+Z) aukera bat da lurraldea eszenatoki pedagogiko gisa ulertzeko, eta horrek tokiko komunitatearekiko lotura sendotzen du. Horrez gain, gizarte-erakundeen kasuan, horien jarduera eta helburuak ikusarazi eta indartzen dira, eta gazteek erakunde horiekin duten harremana eraldatzaile bihurtzen da, parte-hartze arduratsua

sustatuz.

Komunitatearentzat ere nabarmenak dira (I+Z) onurak, izan ere, gizarte-beharrei erantzuten dieten ekimenak garatzen dira, eta herritarren arteko elkartasuna, enpatia eta lankidetza indartzen dira. Horrek komunitateak hezkuntza prozesuan eragile aktibo bihurtzen ditu. Amaitzeko, Rubio (2007) adierazten du (I+Z) esparru politikoan ere eragina duela, herritartasun aktiboa eta lurraldearen beharrei erantzuteko gaitasuna garatzen laguntzen duelako. Dimentsio hori, gainera, nabarmen azaleratzen da kirolaren esparruan, non (I+Z) aukera ematen duen parte-hartzaileek beren garapen soziala, emozionala eta fisikoa modu integratuan lantzeko.

## 3. HELBURUAK

GRAL honek helburu bikoitza du, batetik adimen urritasuna duten pertsonei zerbitzu bat ematea beraien arteko harremanak lantzeko eta bide batez nire ikaskuntza prozesuaz hausnarketa kritiko bat egitea irakasle hobeagoa izateko. Horretarako, ezinbesteakoa da eman den zerbitzua ebaluatzea, izan ere, horrek nire garapenean irakasle izango naizen heinean indarguneak eta ahulgunek identifikatzea ahalbidetuko du, halaber, nire burua trebatzea etorkizunean edozein esku-hartze diseinatzeko.

## 4. METODOA

### 4.1. Jarraitutako prozedura

Lan honen prozedurari dagokiozen, hasteko, unibertsitateko tutorearekin elkarlanean jardun genuen proiektuaren nondik norakoak adosteko, eta lanaren egutegi bat finkatu genuen. GRAL-a (I+Z) bidez garatzea erabaki genuen, eta horrek antolaketa eta egituratze zehatza eskatzen zuen.

Behin lanaren formatoa erabakita, erakundearekin harremanetan jarri ginen eta proietua aurkeztu zitzaien. Metodologiak eskatzen duen bezala, beharrak identifikatu ondoren, horri erantzuteko zerbitzua diseinatu genuen, ondoren praktikara eraman zen, datuen analisia egin eta ondorioak aztertu ziren, eta, azkenik, lanaren txostena idatzi da. Jarraian lanaren kronogarma jasotzen da.

**2. taula**

*Kronograma*




*Iturria: egileak eginda*

**4.2. Testuingurua**

Proiektu hau Zubietan gauzatu da, Real Sociedad Fundazioaren eta LaLiga Genuine egitasmoaren baitan. LaLiga Genuine adimen urritasuna duten pertsonentzako sortutako futbol liga da, 2017an LaLigaren Fundazioak abiarazitakoa, eta helburu nagusi gisa du kolektibo horren gizarteratzea, berdintasunezko aukerak sustatzea eta futbolaren bidez balioetan oinarritutako heziketa eskaintzea. "Lehiatu baino, partekatu" leloarekin, lehiaketa honek kirola tresna pedagogiko eta sozial gisa erabiltzen du, parte-hartzaileei esperientzia positibo eta aberasgarriak bizitzeko aukera emanez.

**4.3. Parte-hartzaileak**

Real Sociedad Fundazioa ATZEGI elkartearekin elkarlanean aritzen da proiektu honetan. ATZEGI Gipuzkoako irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta 1960tik desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta haien familien alde lan egiten du. Haien xedea da haien bizi-kalitatea hobetzea, gizartean sartzea sustatzea eta haien eskubideak errespetatzen direla bermatzea. Laguntza eskaintzen du bizitzako hainbat etapatan, aisialdiko jarduerak antolatzen ditu eta boluntariotza-sare oso aktiboa du. Laneratzeko eta gizarteratzeko proiektuak ere bultzatzen

ditu, bere eguneroko lanaren parte gisa. Proiektuan Real Sociedad Genuine taldeko 29 jokalarik hartu dute parte, 20 eta 55 urte bitarteko 27 gizonezko eta 2 emakumezko. Jatorriz 31 jokalarik osatzen dute taldea (28 gizonezko eta 3 emakumezkoek), baina bi jokalari lesio luzeengatik ezin izan dute saioetan parte hartu. Esan bezala, parte-hartzaileak adimen urritasuna duten pertsonak dira, eta guztiek gutxienez %33ko desgaitasuna aitortua dute.

Nahiz eta talde bereko kideak izan, aniztasun funtzional eta personal maila desbedinak dituzte beraien artean. Batzuk garapen motela dute; beste batzuek sindrome espezifikoak, hala nola, Down sindromea edo autismoaren espektroko nahasmenduak; badaude adimen muga duten pertsonak, adierazpen-desgaitasunarekin edo entzumen-arazo arinak (hipoakuasia) dituztenak. Batzuk autonomoak dira eta bakarrik bizi dira edo bikotearekin, beste batzuk, aldiz, familiarekin bizi dira. Horrek guztiak eskatzen du esku-hartzea egokituak izatea, pertsona bakoitzaren ezaugarrietara moldatzea, izan ere, egoera pertsonalak askotarikoak izanda, horrek eragina izan dezake euren parte-hartzean eta motibazioan. Egoera pertsonal hauek kontuan hartzea garrantzitsua izan da talde-dinamikak eraikitzeko eta konfiantza-giroa sendotzeko.

### 4.4. Emandako Zerbitzua

Esku-hartze honen helburu nagusia izan da adimen urritasuna duten pertsonen garapen sozioemozionala eta gizarteratzea bultzatzea, haien erritmo eta gaitasunei egokitutako jarduera inklusibo eta pedagogikoen bidez. Horretarako, (I+Z) metodologiaren barruan diseinatu eta gauzatu dira saioak, parte-hartze aktiboa, hausnarketa eta bizipenak uztartuz, gaitasun pertsonal eta taldekoak garatzeko.

Esku-hartzea Zubietako instalazioetan gauzatu da, Real Sociedadeko kirol eta formakuntza zentro nagusian. Zerbitzu gehienak igandeetan burutu dira, egun horretan izaten baitituzte Genuineko jokalariek entrenamenduak. Entrenamenduak 9:00etatik 10:30era izaten dira, eta gure esku-hartzea horien ondoren, 11:00etatik 12:00etara eskaini da. Hala eta guztiz ere, saioak hasi aurretik 9:00tako entrenamenduetan parte hartu da, entrenadorearen alboan eta bigarren maila batean, beti ere, partaideekin harremana estutzeko asmoarekin. Esku-hartze prozesua 2025eko otsailaren 23an hasi eta apirilaren 6an amaitu da, eta guztira 6 saiotako zerbitzua gauzatu da.

Proiektua hasi aurretik, bi astez Zubietara bisitak egin dira, testuingurua eta partaideak ezagutzeko: entrenamenduak nola antolatzen diren ikusteko, boluntarioen eta entrenatzaileen rolak identifikatzeko eta jokalarien arteko harremanak nolakoak diren ezagutzeko. Behaketaren bidez eta Errealeko arduradunarekin izandako elkarrizketaren ondorioz, komunikazio- eta harreman-zailtasunak dituztela identifakatu zen eta talde-sentimendua sendotzeko premia zegoela. Hortik abiatuta, esku-hartzearen helburu pedagogikoak finkatu

genituen.

Zerbitzua diseinatu aurretik, familiari zuzendutako informazio-idazki bat eman zaie, baimen informatu gisa, nork, zer eta zertarako egindo den azalduz (ikus 8.2 eranskina). Honakoa Realeko arduradunaren bitartez egin da. Aldi berean, saio bakoitzaren diseinu pedagogikoa sortu ahala, Realeko arduradunarekin konpartitu da, eta Realekoek ATZEGIko arduradunari helarazi izan dio. GRALeko tutorearekin ere adostu dira diseinu horiek, eta guztien oniritzia jaso arte ez da inolako jarduerarik gauzatu. Koordinazio eta adostasun horrek kalitatezko esku-hartze integratua bermatu du.

Horrez gain, hasierako fasean, Realeko arduradunarekin aurrez prestatutako egutegia jokalariekin partekatu da aldez aurretik, une oro horiek erdigunean kokatuz. Jokalarientzat oso garrantzitsua zen jakitea noiz eta zer gertatuko zen. Hala ere, Zubietako erabilgarritasuna eta Genuineko txapelketen egutegia medio, data batzuk aldatu behar izan ziren, eta aldaketa horiek ere aurrez jakinarazi zitzaizkien parte-hartzaileei, koordinazio egokia bermatzeko.

Zerbitzua espazio egokitu batean eman da, non giro eroso eta dinamikoa sortzeko baldintzak eskaintzen dituen: sofa eta aulki mugikorrak, arbel digitala eta arrunta, eta jarduera inklusibo eta aktiboak garatzeko espazio nahikoa. Partaideen arteko aniztasun funtzionala kontuan hartuta, ezinbestekoa izan da espazio fisikoak eta lan-metodologiak pertsona bakoitzaren beharretara egokitzea.

Zerbitzuaren garapena bi taldetan antolatu da, desgaitasun mailaren arabera, zerbitzua ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Lehenengo taldea 12 jokalarik osatu dute, desgaitasun maila baxuagoa dutenek osatu dute; bigarrena 17 jokalarik, zeinak zailtasun handiagoak dituzten. Talde banaketa hau Real Sociedad Fundazioko arduradunaren eta ATZEGIko koordinatzailearen aholkularitzarekin egin da, eta horri esker, saioen edukia eta metodologia talde bakoitzari egokitu ahal izan zaio. Horrez gai, lehen adierazi moduan, talde bakoitzarekin erritmo eta helburu desberdinekin lan egin da, zerbitzua benetan esanguratsua izan dadin.

Lehenengo taldean komunikazio gaitasunak, autoestimua eta talde-lana modu dinamikoagoan eta aurreratuagoan landu dira, eta bigarren taldean berriz, erritmo geldoagoarekin eta laguntza gehiago eskainiz. Talde bakoitzarekin jarduerak eta estrategiak egokitu dira, norbanakoen parte-hartze aktiboa eta ulermena bermatzeko helburuarekin. Ikuspegi pertsonalizatua funtsezkoa izan da esperientzia esanguratsua eta inklusiboa eskaintzeko.

Hori kontuan hartuta, lehenengo taldearekin, hiru saio gauzatu dira: “Emozioen Semaforoa”, “Prentsaurrekoa” eta “Botak Aldatuz”. Bigarren taldearekin, berriz, beste bi saio: “FIFA Txartelak” eta “Bingoa eta Fairplay”. Saio bakoitzak helburu zehatzak izan ditu, eta metodologia aktibo eta parte-hartzaileak erabili dira: emozioen kudeaketa, enpatia,

komunikazio eraginkorra, talde-lana eta Fair Play landu dira horietan.

Aipatu moduan, talde bakoitzaren ezaugarrien arabera egokitu dira jaruderak, ulermena eta parte-hartzea bermatzeko, eta hausnarketa pertsonalak eta kolektiboak bultzatu dira. Testuinguru honetan, kirola eta hezkuntza modu integratuan uztartu dira. Jarduerek bizitzarako funtsezko konpetentziak garatzeko balio izan dute: autonomia pertsonala, autoezagutza, gatazken aurrean jarrera eraikitzailea eta taldearekiko erantzukizuna indartzeko, besteak beste.

Azken egunean, amaiera-festa moduko bat ospatu genuen I+Z metodologiak proposatzen duen modura. Horretarako, lau talde osatu ziren eta guztion artean txapelketa txiki bat egin genuen, Realeko arduradunak eta ATZEGIko bi boluntarioak barne. Horretarako, Triangular moduko egitura erabili zen: talde bakoitzak gainerako guztien aurka jokatu behar izan zuen, eta amaieran, partida gehien irabazitako taldea izan zen irabazlea. Ondoren, gelara itzuli eta azken balorazioa partekatu zen, eta tortilla eta bizkotxoekin eman genion zerbitzuari (ikus 8.2 eranskina).

Saio bakoitzaren diseinu zehatza, erabilitako materialak eta plangintza osoa lan honen eranskinetan daude jasota (ikus 8.3 eta 8.4 eranskinak). Hurrengo taulan, ordea, saio bakoitzean landutako gaiak eta helburuak.

**3. taula**

*Saioen deskribapen laburtua*

| SAIOAK | HELBURUAK | LANDUTAKO EDUKIAK |
|---|---|---|
| 1. saioa: Emozioen semaforoa | **Emozioen kudeaketa eta motibazioa:** Emozioak identifikatu eta bideratu kirol esperientzia hobetzeko. | **Emozioen identifikazioa:** Egoera arrunt eta kirol testuinguruetan emozio desberdinak bereizten eta izendatzen ikastea (poza, haserrea, frustrazioa…).<br><br>**Adierazpen emozionala:** Ahoz, keinu eta aurpegieraren bidez sentimenduak modu errazean adierazteko gaitasuna.<br><br>**Autoerregulazioa:** Emozio biziei aurre egiteko estrategiak (arnasa hartzea, urruntzea, bost arte zenbatzea…).<br><br>**Hausnarketa emozionala:** Norberaren portaera eta emozioen arteko loturak. |

| | | |
|---|---|---|
| | | **Gatazken prebentzioa:** Arrisku egoeren identifikazioa eta bideratzeko jokabide egokiak. |
| 2. saioa: Prentsaurrekoa | **Ikaskideen arteko komunikazio eraginkorra:** Ahozko eta ez-ahozko adierazpena hobetzea, hobeto ulertzeko. | **Ahozko komunikazioa:** Aurrez aurreko komunikazioa.<br><br>**Elkarrizketa gaitasunak:** Entzute aktiboa…<br><br>**Konfiantza eta enpatia:** Besteen bizipenen jasoketa zintzoa...<br><br>**Autoestimua eta ikusgarritasuna:** Autonkotzeptua, norberarekiko errespetua…<br><br>**Talde giroaren sustapena:** parte-hartze estrategiak… |
| 3. saioa: Botak aldatuz | **Harreman osasungarriak eta gatazkak konpontzea:** Desadostasunak kudeatzeko eta giro positiboa sustatzeko estrategiak. | **Gatazken identifikazioa eta azterketa:** Egoera gatazkatsuen identifikazioa eta horri aurre egiteko estrategiak.<br><br>**Emozioen adierazpena eta arrazoiketa:** Sentipenak, emozio astiduak, erreakioak…<br><br>**Enpatia eta ikuspegi aldaketa:** beste pertsonaren tokian jartzeko abilezia.<br><br>**Irtenbideak bilatzeko gaitasuna:** Egoera gatazkatsuak kudeatzeko alternatiba osasuntsuen proposamenak.<br><br>**Ulermen emozionala eta autokontrola:** Jokabideen ondorioen gaineko kontzientzia eta norberaren jarrera. |
| 4. saioa: FIFAko kartak | **Trebetasun pertsonalak eta talde-lana:** Autokonfiantza eta elkarri laguntzearen garrantzia indartzea.<br>**Lankidetza eta talde-espiritua:** | **Autoezagutza:** Norberaren ahulguneak, indarguneak eta hobetzeko aukeren identifikazioa.<br><br>**Autokonfiantza:** Balorazio positiboak egoki jasotzeko abilezia, norbere buruarekiko sinesmena… |

| | | |
|---|---|---|
| | Futbolaren barruan laguntasun-balioak sustatzea. | **Enpatia eta aitortza positiboa:** Besteen ezaugarri onak identifikatzeko gaitasuna.<br><br>**Balio sozialak:** Errespetua, laguntza, esfortzua...<br><br>**Adostasun demokratikoa:** Taldean negoizazetzeko eta aukeratzeko gaitasuna. |
| 5. saioa: Bingoa eta Fairplay | **Komunikazio inklusiboko estrategiak:** Entrenatzaileekin, lankideekin eta familiarekin interakzioa erraztea. | **Komunikazio inklusiboa:** Harreman positiboak izateko estrategiak, asertibitatea…<br><br>**Entzute aktiboa:** Entzuteko eta galdera egiteko gaitasuna.<br><br>**Talde kohesioa:** Taldeko balioak, errespetua, lankidetza… |
| 6. saioa: Festa eguna | Zerbitzuari amaiera biribila ematea. | **Zerbitzuaren oroitzapen aktiboa:** Ikasitakoaren balantzea.<br><br>**Talde kohesioa eta elkarrekiko aitortza:** Ikasitakoaren identifikazioa, eskertzak.<br><br>**Motibazioa eta erritmoen errespetua:** Mini-txapelketaren bidez, ikasitakoa aurrera eramateko aukera.<br><br>**Itxiera zaindua eta oroitzapen kolektiboa:** Talde argazkiak eta azken agurrak elementu sinboliko eta emozional gisa. |

*Iturria: egileak eginda*

### 4.5. Azterketa metodologikoa

Lan honen bidez bildutako datuen anlasirako ikuspegi kualitatiboa lehenetsi da, etnografia eta eduki-analisia ardatz izanik. Aukera hau hautatu da, izan ere, parte-hartzaileen praktikak, sinesmenak eta portaerak beraien ingurune naturalean sakon aztertzeko aukera ematen duelako. Era berean, ikertzailearen beraren ikaskuntza-prozesua modu egokian aztertzeko ere baliagarria den metodologia delako. Ikuspegi honek aukera eman du taldearen eguneroko

bizitzan parte hartzeko, eta, eremu-oharren eta kontakizunen bitartez, pertsonen arteko harremanak, errituak eta esanahiak modu zehatzean jasotzeko. Nahiz eta denbora laburrean gauzatutako proiektua izan, ikerketa-akzioa metodologiatik gertu dagoela esan dezakegu, kontuan hartuta metodologia honek ez duela ezagutza sortzea soilik bilatzen, baizik eta hezkuntza kritikoa eta gizarte-ekintza sustatzea ere (Montañes, 2012), komunitatearen parte-hartze zuzenarekin. Horrela, komunitatea azterketa-objektu izateari uzten dio eta prozesuaren protagonista bihurtzen da.

### 4.6. Informazioa jasotzeko tresnak

Proiektuaren ibilbidea aztertzeko eta haren eragina ebaluatzeko, hau da, informazioa biltzeko hainbat tresnez baliatu gara. Tresna horien bidez, esku-hartzearen garapenari eta parte-hartzaileen zein arduradunen bizipenei eta pertzepzioei buruzko datu esanguratsuak jaso ahal izan dira.

Erabilitako tresna nagusia eta narrazio etnografikoa ahalbidetu duena eguneroko pertsonala izan da. Bertan jaso dira saio bakoitzean izandako esperientziak, egindako behaketak, plangintzaren inguruko hausnarketak, proposamen didaktikoaren garapenaren inguruko gogoetak eta zerbitzuaren ezarpena erraztu edo oztopatu duten faktoreei buruzkoak, besteak beste. Halaber, jokalarien jokabideari, parte-hartzeari eta elkarreraginetako dinamikari buruzko zuzeneko oharrak bildu dira, baita saioetan gertatutako une esanguratsu eta adierazgarriak ere (ikus 8.2 eranskina).

Horrez gain, saio-bloke bakoitzaren amaieran, saioaren ebaluazioa egieko esakatu zaie parte-hartzaileei, haien bizipenei buruzko iritzia jasotzeko. Horretarako berariazko txantiloiak erabili dira. Desgaitasun maila baxuagoa duen lehen taldeari galdetegi idatzi bat eman zaie, non emozioei buruzko galderak, saioan gehien gustatu zaiena eta gustatuko litzaiekeen moduren bat aldatzeko proposamenak jasotzeko aukera eman duena. Bigarren taldearekin, desgaitasun maila handiagoa zuenez, ebaluazioa ere egokitu zaie: emozioak eta gustukoen izan duten jarduera aztertu dituzte, eta idazteko zailtasunak zituzten kasuetan, ahoz adierazi izan dituzte, beraz, horien ekarpenak ere jaso egin dira. Jarduera horiei esker, parte-hartzaileen pertzepzio zuzena jaso ahal izan da, eta esperientziaren eragina hobeto ulertu (ikus 8.5.2 eranskina).

Gainera, galdetegi erdi-egituratuak osatu dituzte parte-hartzaileek, lortutako informazioa triangeluatu eta behaketan eta kontakizun etnografikoan zehar sortu diren alderdi espezifikoetan sakontzeko helburuarekin. Galdetegiek analisia aberasten duten pertzepzio indibidualak eta ñabardura subjektiboak biltzea ahalbidetu dute, eta horrek esperientzietan ereduak eta desbideratzeak identifikatzea erraztu.

Halaber, saio bakoitzaren amaieran, azken minutuak taldeko iritziak biltzeko erabili dira. Une horretan, jokalariek ahoz adierazi dute nola sentitu diren, zer gustatu zaien gehien, zer ikasi duten eta zein elementuk ez dieten hainbeste interesa piztu. Elkarrizketa labur eta natural horiek baliagarriak izan dira taldearen bizipen orokorra eta saioaren eragina modu informalean baina esanguratsuan jasotzeko.

Azkenik, esku-hartzeko saio guztiak amaitu ondoren, arduradunek ebaluazio-orri bat bete dute. Tresna horren bidez, proiektuaren garapen orokorrari, jokalarien parte-hartzeari eta lortutako emaitzei buruz duten iritzia jaso da. Halaber, etorkizunean antzeko jarduerak garatzeko kontuan hartu beharreko hobekuntza-proposamenak ere bildu dira, haien esperientzia eta ikuspegia oinarri hartuta. (ikus 8.5.1.eranskina).

Erabilitako tresnek, oro har, bai prozesuan zeharreko jarraipen etengabea bai azken balorazioa egitea ahalbidetu dute, eta esku-hartzearen ikuspegi orokorra izateko aukera eman dute, bai parte hartzaileen bizipenetatik bai arduradunen ikuspegitik.

### 4.7. Datuen analisia

Proiektuan bildutako informazioa aztertzeko helburu nagusia izan da bizitako esperientziak ulertzea eta horiei zentzua ematea. Horretarako, jasotako datu guztiak antolatzeko eta interpretatzeko tresna gisa, kategoria-sistema bat ezarri da, eta horrek aukera eman du erabilitako baliabideak (egunerokoa, jokalarien osatutakoebaluazio txatilloiak, saioetako ahozko feedback-a eta arduradunen ebaluazio-orriak) modu egituratuan lantzeko.

Jasotako informazioaren tratamendua hiru fase nagusitan banatu da, prozesua modu sistematikoan burutu ahal izateko. Lehenik, informazio guztia antolatu eta ordenatu da, egunerokoaren edukia eta saioetan gertatutako gertaerak egituratuz, esku-hartzearen ardatz nagusien arabera sailkatuta. Ondoren, eduki horiek laburtu eta multzokatu dira, eta informazio horretan errepikatzen ziren joerak, erronkak, aurrerapenak eta emozioak identifikatzeko kategoria komunak definitu dira. Kategoria horiek esperientzian bertan oinarrituta sortu dira, datuen azterketa induktiboaren bidez.

Azkenik, behatutako datuak berrirakurri eta interpretatu dira, berariaz sortutako ebaluazio tresnen bidez eta aurretik egindako sailkapenaren arabera. Fase hau funtsezkoa izan da proiektuaren benetako eragina ulertzeko eta bizipenetan oinarritutako ondorio esanguratsuak ateratzeko. Horri esker, esku-hartzearen atzean dauden bizipen eta ikaskuntza sakonenak azaleratu ahal izan dira, eta interpretazioak prozesu osoari koherentzia ematea ahalbidetu du.

Kategoria-sistemaren erabilerak aukera eman du eguneroko jardueretan bildutako datuak eta gainontzeko ebaluazio-tresnetatik lortutakoak ikuspegi bateratu baten bidez aztertzea. Hau

hezkuntza-ikerketaren fase metodologiko garrantzitsuenetako bat izan da: datuak jaso ondoren eta emaitzak aurkeztu aurretik, bizi izandako guztia interpretatzeko tartea eskaini baitu, bizipenak esanguratsu bihurtuz.

Azterketa honen barruan sortu den kategoria-sistema ondorengo taulan aurkezten da. Sistema horren bidez, argi ikus daiteke informazioa nola egituratu den eta zein dimentsiotan banatu den. Zehazki, bost dimentsio nagusi ezarri dira eta datuen analisirako bakoitzari kolore bat esleitu zaio (8.1 erankinean ikusgai): esperientziak, sentipenak eta anekdotak; plangintza eta antolaketa; harremanak eta elkarreraginak; gertaera kritikoak; eta ikaskuntza eta erreflexioa.

Dimentsio bakoitzaren barruan hainbat kategoria definitu dira, eta horien azpian azpikategoriak sortu dira, praktikan antzeman diren alderdi espezifikoak xehetasun handiagoz aztertzeko. Egitura hierarkiko horrek edukiaren interpretazioa aberastu du, eta saioetan bizitako egoeren arteko loturak modu argiagoan ulertzea erraztu du.

**4. taula**

*Analisirako tresna: sistema kategoriala*

| Dimentsioak | Kategoriak | Azpikategoriak |
|---|---|---|
| Esperientziak/sentipenak/ anekdotak | Zalantzak/kezkak | Saioak egokitzea |
| | | Erantzunak |
| | Sentimendu positiboak | Giro ona |
| | | Poza |
| Planifikazioa | Aspektu metodologikoak | Diseinua |
| | | Espazioa eta materiala |
| | | Taldekatzeak |
| | Faktore erreztatzaileak | Arduradunak eta boluntarioak |
| | | Jokalarien jarrera |
| | Faktore oztopatzaileak | Denboraren kudeaketa |
| | | Hizkuntza |
| | | Entrenamenduetako egunak |
| | Saioen ebaluazioa | Balorazio pertsonala |

| | | |
|---|---|---|
| | | Jokalarien balorazioa<br>Arduradunen balorazioa |
| Harremanak | Ikasleen arteko harremanak | Talde kohesioa<br>Elkarekintza |
| | Irakasle-ikasle harremanak | Hurbiltasuna<br>Konfiantza<br>Laguntza |
| Gertaera kritikoak | Gertaera | Egoitzen irteera<br>Azken momentuko aldaketak |
| | Erabakiak hartzea | Antolaketa |
| Ikaskuntza | Pertsonala | Gatazken kudeaketa |
| | Akademikoa/profesionala | Esku hartzearen diseinua |

*Iturria: egileak eginda, Gamito, 2022an oinarrituta.*

## 5. EMAITZAK

Atal honetan datu guztiak aztertu ondoren ateratako emaitzak jasotzen dira. Horiek aurkezteko lanaren helburuetara joko dugu.

### 5.1. Prozesuan ikasitakoak

Zerbitzuen diseinua erronka handia izan da, batez ere bi talde oso ezberdinekin lan egiteak baldintzatzen zuelako: gaitasun handiagoko talde bat eta akonpanaimendu gehiago behar zuen beste bat. Hasieratik egokitu behar izan dira dinamiken konplexutasuna eta helburu pedagogikoak talde bakoitzaren erritmo eta beharretara. Lehenengo saioek balio izan dute bakoitzaren benetako gaitasunak ezagutzeko eta ondorengo plangintza doitzeko. Hasteko, egitura malgu eta progresiboa sortu zen, eta horrek esku-hartze osoari koherentzia eta eraginkortasuna eman dio.

*Hasieratik badakit lehen taldeko partaideek gaitasun handiagoa dutela, baina ez dakit zehazki zein mailatara iritsi daitezkeen, eta horrek zalantza sortzen dit. Lehenengo zerbitzuaren eman ostean argi ikusi dut gehiago eman dezaketela, eta horrek aukera eman dit hurrengo saioak hobeto egokitzeko. Bigarren taldearekin, hasierako erritmoa egokia dirudi baina*

*denborarekin konturatu naiz jarduerak sinpleagoak izan beharko direla. Bi taldeentzako zerbitzuen egitura berrikusi eta mailaren arabera berrantolatu behar izan dut. (egunerokoa 2025/02/09)*

Prozesu honetan ohartu naiz ezin dela diseinu bakarra guztientzat balio duenik. Talde bakoitzak bere erritmoa, behar bereziak eta jarrera ditu, eta horrek irakasle bezala neure burua zalantzan jartzera eta etengabeko egokitzapenera behartu nau. Beldur puntu batekin hasi nintzen, batez ere bigarren taldeari nola heldu ez nekielako, baina esperientziak erakutsi dit prozesuan ikastea posible dela. Nire plangintza gero eta zehatzago eta zentzudunago bihurtu da, eta orain sentitzen dut benetan lortu dudala talde bakoitzari egokitutako proposamen hezitzaile bat eskaintzea.

Proiektu osoan zehar, jokalarien erantzunek eta haien parte-hartze aktiboak nire ziurgabetasun batzuk argitzen lagundu didate. Dinamika bakoitzaren ostean, ahozko eta zeharkako feedbacka jaso dut, eta haien erreakzioetan oinarrituta baloratu ahal izan dut zer funtzionatzen zuen eta zer ez. Haien hitzek eta jarrerek erakutsi didate nola sentitzen ziren, eta haiek esandako mezuek nire eginkizun pedagogikoaren zentzua berretsi dute.

*Une hunkigarriak sortu dira batez ere jokalari batekin: Gehien gustatu zaiena galdetu diet eta nola sentitu diren galdetu dietenean taldeko ia guztiek gutxienez gauza positibo bat esan diote, eta hark, hunkituta, esan du: "Muchas gracias a todos hoy salgo con el pecho engrandecido por todas las cosas que me habeis dicho y llevo el corazón lleno" Momentu horretan, eta talde osoak elkarri besarkada eman zion. Une horretan emozio handia sentitu nuen; izan ere, gauza txiki batek horrenbeste eragin zezakeela konturatu nintzen. Dinamika amaitu ostean nik neuk esan nien nola ikusten nituen, eta momentua benetan hunkigarria izan zen guztiontzat. (egunerokoa 2025/03/02)*

Une horrek guztiz markatu ninduen. Askotan ez gara konturatzen ekintza txiki batek zein indar izan dezakeen parte-hartzaileen bizipenean. Parte hartzaile horren esker oneko hitzak eta talde osoaren besarkada kolektiboa seinale argia izan ziren: espazio segurua sortu genuen, eta horrek benetako eragina izan zuen haiengan. Feedback zuzena eta emozionala jasotzeak nire lana ez dela akademikoa bakarrik erakutsi dit, baizik eta pertsonen arteko errespetuan eta konexioan oinarritua.

Esku-hartzearen hasieratik, giro atsegina sortzea eta mantentzea funtsezkoa izan da. Jokalariek

erakutsitako jarrera irekia eta errespetuzkoa lagungarria izan da niretzat eta dinamiken garapenerako. Saioetan parte-hartzaileen artean sortu zen konfiantza, elkar onartzea eta errespetua, gela barruan giro lasai eta positibo batean islatu ziren. Horrek guztiak, esperientziaren zehar, poza, segurtasuna eta motibazioa eragin dizkit, bai niri eta bai parte-hartzaileei.

*Harrera beroa sentitu dut lehen egunetik, oso gustura egon naiz, gaur talde guztiari aurkeztu naiz eta horrek asko lagundu dit. Niretzat momentu hori garrantzitsua izan da, izan ere, beraiek jarrera oso positiboa erakutsi dute, eta horrek lasaitasuna eman dit hurrengo saioetan lan egiteko. (egunerokoa 2025/01/26)*

Ez da nahikoa dinamika on bat prestatzea; funtsezkoa da giro egokia sortzea. Lehen egunetik jokalariek emandako harrera beroa ezinbestekoa izan zen nire lasaitasunerako eta haiekin lotura eraikitzeko. Jarrera irekia eta kolaboratiboa sentitu nuenean, ohartu nintzen posible zela taldearen barruan espazio segurua sortzea. Giro horrek parte-hartzea, konfiantza eta poza erraztu zituen, eta nire lana bizipen bihurtu zuen.

Espazio fisiko egoki batek eta talde teknikoaren laguntza aktiboak eragin zuzena izan dute esku-hartzearen arrakastan. Gela multisentsorialak askatasunez antolatzeko aukera ematen zuen, eta dinamiken ezaugarrietara egokitzen zen. Horrez gain, Real Sociedad Fundazioko arduradunek eta ATZEGIko boluntarioek hasieratik erraztasun guztiak eman zituzten. Horrela, lan-ingurune segurua eta lagungarria sortu da, non guztiek izan dute tokia eta errespetua. Talde horien lankidetza eta konfiantza giroak nire rola sendotu zuten eta prozesuaren kalitatea handitu.

*Zubietara joan behar izan det igandean taldearekin bakarrik egongo naizelako eta jakiteko nora eraman behar ditudan eta zein gelatan izango den egokiena zerbitzua ematea. Azkenean lehenengo zerbitzua gauzatu dudan gelan egitea erabaki dut, sofa eta aulki mugikorrak daudelako, horrek aukera ematen dit nahi dudan bezala taldekatzeko eta espazioa dinamika bakoitzera moldatzeko(egunerokoa 2025/02/26).*

*Egoitzek eta Susanak jarri dizkidaten erraztasun denak eta transmititu didaten lasaitasuna eta konfiantza oso lagungarriak izan dira. Horiei esker, zerbitzuaren egitura argi eta lasai garatu ahal izan dut, eta ez dut momentu bakar batean ere bakarrik sentitu nire burua. (egunerokoa 2024/11/20)*

Esku-hartzean espazio fisikoak eta inguruko laguntza taldeak eragin nabarmena izan dute nire segurtasunean eta lan egiteko moduan. Gela egokiak malgutasuna eta kontrola ematen zituen, eta horrek parte-hartzaileen lasaitasuna errazten zuen. Baina benetako diferentzia egin zutena izan ziren arduradunen laguntza eta presentzia. Haien konfiantza eta prestutasunak nire ziurtasuna indartu zuten eta nire ekarpena baloratua zela sentiarazi zidaten. Ingurune fisiko eta pertsonal egokia edukitzea izan da nire lanaren oinarrietako bat.

Proiektua gauzatzean, ordea, hainbat oztopo aurkitu ditut, batez ere denboraren eta egutegiaren kudeaketan, komunikazio-arazoetan eta entrenamendu-errutina zurrunarekin lotutako zailtasunetan. Zubietako erabilgarritasuna mugatua zen eta Genuineko txapelketek aldaketak eragiten zituzten. Hizkuntza aldetik, ere parte hartzaile guztiek ez zuten ahozko adierazpen-maila bera, eta horrek saioetako parte-hartzean eragina izan du. Bestalde, saioak beti igandetan, entrenamenduen ondoren egin behar izateak, jokalarien nekea eta arreta-maila kontuan hartzea eskatu du. Faktore horiek guztiak egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna eskatu dute.

*Egoitzekin kontaktuan jarri naiz zerbitzuen datak adosteko. Hasieran prestatu dudan egutegia bidali diot, eta hark jokalariei pasa zien informazioa, aurretik prest egon zitezen. Beraientzat oso garrantzitsua da aldez aurretik jakitea noiz eta zer egingo den. Hala ere, Zubietako instalazioen erabilgarritasunaren eta Genuine txapelketako egutegiaren ondorioz, hasierako data batzuk aldatu behar izan ditugu. Behin aldaketak eginda, berriz pasa nien egutegia berak jokalariei eta arduradunei. (egunerokoa 2025/02/16)*

Egunerokoan askotan sentitu dut planifikatutako gauzak ez zirela aurreikusitako moduan garatzen, eta horrek tentsioa sortzen du. Hala ere, une horiek kudeatzean konturatu naiz irakasle bezala hazteko aukera handia ematen dutela. Faktore hauek ez dira lanaren aurkakoak izan; lanaren parte bihurtu dira, eta horiei aurre egiteko gai izateak nire gaitasun pedagogikoak indartu ditu.

Saioen garapenean zehar, bi ikuspegi nagusietatik jaso dut ebaluazioa: alde batetik, nire barne-balorazioa (zer atera zen ondo eta zer hobetu nezakeen, nola egokitu hurrengorako) eta bestetik, Real Sociedad Fundazioko arduradunen iritzi eta baieztapena. Horrek aukera eman du lana modu egokian gauzatzea eta etengabeko ebaluazioari arreta jarriz. Arduradunekin partekatzen nuen saio bakoitzaren diseinua, eta haien onespenik gabe ez nuen aurrera egiten.

Nire buruari exijitu diot kalitate pedagogiko eta komunikatiboa mantentzea, eta prozesuan zehar ikasi dut benetako lankidetza zer den.

*Saio guztiak bidali dizkiet bai nire GRALeko tutoreari, bai Axi eta Egoitzi, eta beti esan didate gustuko dutela egiten ari naizen lana eta ondo ikusten dituztela planteatutako helburuak eta dinamika bakoitzaren egitura. Ez dut inoiz egin saiorik haien baimenik gabe. Nik neuk ere balorazio orokor positiboa egiten dut, eta uste dut progresioa egon dela dinamiken diseinutik eta taldearen erantzunetik abiatuta. (egunerokoa 2025/04/06)*

Autobalorazioak eta kanpoko balorazioak uztartzea ikaskuntza prozesu aberasgarria bihurtu da niretzat. Ez naiz soilik nire irizpideetan oinarritu: arduradunen eta tutorearen iritziak oinarri hartu ditut neure lana hobeto ulertzeko eta garatzeko. Prozesuan ikasi dut autoeskaera eta fidagarritasun profesionala nola uztartu. Emaitza ez da soilik onartutako dinamika bat, baizik eta lankidetza batean oinarritutako hezkuntza-proiektu bat. Horrek indar handia eman dit nire paperean.

Esku-hartzearen garapenean, jokalarien arteko harreman dinamika eraldaketa nabarmena izan da. Hasiera batean taldeko kide askok elkarrekin harreman eskasa zuten edo taldetik kanpo sentitzen ziren. Saioen helburu nagusietako bat izan zen kohesioa sustatzea eta elkarren arteko interakzioak aberastea. Dinamika egokien bidez, elkar ezagutzeko espazio seguruak sortu ziren eta haien arteko komunikazio eta konfiantza nabarmen hobetu ziren. Saioen amaierarako elkartasunaren eta talde-sentimenduaren gorakada agerikoa zen.

*Une hunkigarriak sortu dira batez ere jokalari batekin: Gehien gustatu zaiena galdetu diet eta nola sentitu diren galdetu dietenean taldeko ia guztiek gutxienez gauza positibo bat esan diote, eta hark, hunkituta, esan du: "Muchas gracias a todos hoy salgo con el pecho engrandecido por todas las cosas que me habeis dicho y llevo el corazón lleno" Momentu horretan, eta talde osoak elkarri besarkada eman zion. Une horretan emozio handia sentitu nuen; izan ere, gauza txiki batek horrenbeste eragin zezakeela konturatu nintzen. Dinamika amaitu ostean nik neuk esan nien nola ikusten nituen, eta momentua benetan hunkigarria izan zen guztiontzat (egunerokoa 2025/03/02.*

Harremanak ez dira berez sortzen, baina giro egokia eta tresna pedagogiko egokiak erabilita, talde batean lotura sakonak eraiki daitezke. Une honetan ohartu nintzen helburua baino zerbait gehiago lortzen ari ginela: benetako talde bat sortzen. Elkar onartzeko, entzuteko eta elkar

zaintzeko pausoa eman genuen, eta nik ere ikasi nuen harremanek hezkuntzan duten garrantzia. Pertsonen arteko loturak lantzea ez da “plus” bat: hezkuntza transformazioaren bihotza da.

Proiektu honetan sortu ziren irakasle-ikasle harremanak ez ziren ohikoak izan; giro ez-formalean eta futbol testuinguru batean sortu ziren, baina edukiz eta emozioz betetakoak izan ziren. Jokalariek pixkanaka-pixkanaka ni gertuago sentitzen hasi ziren, eta nire presentziarekiko konfiantza handitzen joan zen. Horrek aukera eman zuen euren kezkak partekatzeko, dinamiketan benetan parte hartzeko eta batzuetan nire laguntza bilatzeko modu naturalean. Elkarrenganako hurbiltasuna eta elkarrekiko errespetua harreman pedagogikoaren oinarri bihurtu ziren.

*Bigarren bisitan, jada ezagutzen didate, eta lehen momentutik hurbildu dira niregana. Hasi baino lehen, entrenamenduan parte hartu dut, eta horrek aukera eman dit modu informalago batean beraiekin aritzeko eta beraiekin konfiantza gehiago eraikitzeko. Saioa hasteko prest nengoenean, eurek esan didate: ‘Gaur zer egingo dugu?’, eta nik ikusi nuen nola pixkanaka nire presentzia naturaltasunez hartzen ari diren. (egunerokoa 2025/02/02)*

Ez nain irakasle gisa bakarrik jardun: bidelagun modura bizi izan dut, eta horrek nire rola eraldatu zuen. Konfiantza ez da agintetik sortzen, baizik eta eguneroko keinu txikien bidez eraikitzen da. Haiekin entrenamenduan egotea, saioak baino lehen elkarrekin momentu ez formalak izatea edota norbaitek laguntza behar bazuen ematea izan dira benetako loturak sortzeko aukera eman duten momentuak. Gaur egun, hezitzaile modura, uste dut hurbiltasunetik eta enpatiatik eraikitako harremanek dutela eragin pedagogikorik handiena.

Proiektuaren ibilbidean zehar zenbait gertaera kritiko izan ziren, eta horiei aurre egiteak planifikazioa aldatu eta antolaketa berrantolatzea eskatu du. Gertaerarik nabarmenena Errealeko arduradunetako baten irteera izan zen, proiektuaren lehen eragile nagusia. Bere lekua beste arduradun batek hartu zuen, eta horrek aldaketa emozional eta praktikoak ekarri zituen. Bestetik, Zubietako espazioen erabilgarritasuna eta Genuine txapelketaren egutegia medio, azken momentuko aldaketak egin behar izan nituen. Horiei aurre egiteko, koordinazio arina eta egokitzeko gaitasuna ezinbesteko bihurtu ziren.

*Orain arte egin dudan ibilbide guztia Egoitzeri esker izan da, bera izan baita nire lehenengo kontaktua eta lehenengo momentutik sinetsi zuena nire lanak emaitza onak eman zitzakeela.*

*Bere irteera pena bat izan da, baina zorionez Axierrek berehala hartu du ardura eta oso prest agertu da denetarako. Aldaketa bat izan da niretzat, baina ez da oztopo bihurtu. (egunerokoa 2025/03/27)*

Gertaera kritikoek erakutsi didate egonkortasunari eutsi nahi badiogu, egokitzeko gaitasuna landu behar dela. Egoitzen irteerak emozionalki eragin zidan, baina ikasi dut konfiantza harreman bat pertsona batean baino gehiago, proiektuaren egituran oinarritu behar dela. Gainera, antolaketaren inguruan ikasi dudana da ez dela nahikoa planifikazioa edukitzea; komunikazio eraginkorra eta planak birplanteatzeko malgutasuna funtsezkoak dira. Gauzak ez dira beti aurreikusitako moduan ateratzen, baina horrek ez du esan nahi gaizki doazenik.

Esku-hartze prozesuan gatazkak eta haien inguruko kudeaketa erdigunean jarri ziren. Jokalarien artean ezberdintasunak eta tentsio txikiak sortzen ziren momentuak identifikatu eta horien inguruan lan egiteko saioak diseinatu nituen. Gatazkei aurre egiteko estrategiak lantzea, enpatia bultzatzea eta komunikazio eraikitzailea sustatzea izan ziren helburu nagusiak. Horrekin batera, esku-hartzearen diseinua bera prozesu progresibo eta egokitu gisa ulertu nuen, esperientzian oinarritua, eta talde bakoitzaren errealitateari egokitutakoa.

*Ikaskuntza asko eraman ditut etxera. Batetik, gatazken aurrean nola lagundu eta nola kudeatu ikasi dut, beti neutraltasunetik eta ulermenetik abiatuta. Bestetik, desgaitasun desberdinetara egokitzeko estrategia praktikoak landu ditut, eta hezitzaile bezala neure burua sendoago ikusten dut orain. Gainera, konturatu naiz plangintza bat izatea oso garrantzitsua dela, baina are garrantzitsuagoa dela hori moldatzeko prest egotea. (egunerokoa 2025/04/14)*

Gatazka batek ez du zertan arazo bat izan; aukeratutako ikuspegiaren arabera izan daiteke hezkuntza tresna indartsua. Saioetan ikasi dut gatazkaren aurrean neutro egotea ez dela pasiboa izatea, baizik eta bide bat irekitzea elkar ulertzeko. Esku-hartzearen diseinua ere ez da dokumentu estatiko bat; prozesu bizia da, eta esperientziaren arabera moldatu behar den zerbait. Gatazken bidez eta egokitzapen horien bidez ikasi dut benetako hezitzaile lana zer den: etengabeko entzutea, interpretatzea eta erantzutea.

Bestetik, emandako zerbitzuek eduki duten inpaktua aztertzeko, parte-hartzaileei eta arduradunei ebaluazio-txantiloiak helarazi nizkien, euren esperientzia eta pertzepzioa jasotzeko helburuarekin. Ebaluazio hauek ahoz zein idatziz jaso nituen, eta emaitzek oso balorazio positiboak erakutsi zituzten. Jokalari askok adierazi zuten dinamiketan parte hartzea

baliagarria izan zela beraien burua hobeto ezagutzeko, taldearekin konektatzeko eta euren emozioak adierazteko. Gehien errepikatutako hitzak “ondo pasatzea”, “konfiantza”, “lagunak ezagutzea” eta “elkar hobeto ulertzea” izan ziren.

### 5.2. Zerbitzuaren inpaktua

Zerbitzuaren inpaktua neurtzeko, aurreko ataletan adierazi moduan, koordinatzaileei nahiz parte hartzaileei zerbitzua ebaluatzea eskatu zaie eta jarraian horien emaitzak jasotzen dira.

Real Sociedad Fundazioko arduradunek azpimarratu dute esku-hartze honen eragina nabarmena izan dela bai jokalariengan bai Real Sociedad Fundazioko arduradunengan. Betetako ebaluazioetan agertzen den moduan, saioen edukia interesgarria eta egokia izan da, eta taldeak positiboki hartu ditu ekimenak. Adierazi dute dinamika horiek ez direla ohikoak euren egunerokotasunean, eta profesional batek eskainitako lanketa honek ikuspuntu berria eta aberasgarria gehitu diela. Horrelako proiektu batek, euren hitzetan, gauza interesgarriak lantzeko balio izan duela, hortaz, pozik agertu dira (ikus 8.5.1 eranskina).

Hori horrela, inpaktua argia izan da: galdera guztietan puntuaziorik altuenak lortu ditu zerbitzuak, eta parte hartzaileentzek guztiz merezi izan duela adierazi dute. Bestalde, elkarrizketetan eta ahozko feedbackean adierazi dutenez, parte hartzaileen motibazioa handitu egin dela, eta euren artean harreman hobeak eraikitzeko lagundu duela. Taldearen ikuspegitik, prozesuaren berritasuna eta dinamiken erabilgarritasuna nabarmendu dituzte, eta etorkizunean horrelako ekimen gehiago izatea gustatuko litzaiekeela azpimarratu dute (ikus 8.5.1 eranskina).

Horrez gain, proiektuaren inpaktua ez da soilik momentukoa izan; epe ertain eta luzean ere eragin positiboa izateko oinarriak jarri dira. Parte-hartzaileengan giro seguru eta errespetuzko bat eraikitzeak haien autoestimua, komunikazio-gaitasunak eta taldeko kohesioa indartu ditu. Era berean, Fundazioaren barruan lanketa mota hau balioan jarri da, eta etorkizunean antzeko proiektuak bultzatzea errazten duen aurrekari gisa geratuko da. Azken finean, egindako lana ez da izan esperientzia isolatu bat, baizik eta eraldaketa soziala eta hezitzailea eragiteko tresna eraginkorra.

Azkenik, parte-hartzaileen balorazio emozionalek adierazten dute ez direla jarduera isolatu batzuk izan, baizik eta taldean konektatzeko eta norbere burua balioan jartzeko aukera bat izan dela. Esku-hartzeak bereziki eragin du jokalarien autoestimuan, konfiantzan eta taldearekiko

atxikimenduan. Hori guztia ikusita, esan daiteke esku-hartzeak ez duela soilik helburu akademikoa bete, baizik eta benetako eraldaketa pertsonala eta soziala sustatu duela (ikus 8.5.2 eranskina).

## 6. ONDORIOAK ETA EMAITZEN GAINEKO EZTABAIDA

Gradu Amaierako Lan honetan teoriatik praktikara egindako jauzia nabarmen geratu dela esan ahako genuke. Aramburuzabala et al. (2015) autoreek dioten moduan, I+Z metodologiak aukera eman du ezagutza akademikoak errealitate sozialarekin uztartzeko. Jakintza teorikoak testuinguru erreal batean aplikatzeko aukera izan dugu, hain zuzen ere, Real Sociedad Fundazioaren eta ATZEGI elkartearen lankidetzan adimen urritasuna duten pertsonekin. Hori horrela, baieztatu daiteke, modu honetako lanek bizipen pedagogiko esanguratsu eta benetako eraldaketa soziala sustatzeko aukera eskaintzen dutela.

Booth eta Ainscow-ren (2011) ikuspegiaren bat eginez, adimen urritasuna duten pertsonentzat ingurune egokituak sortzea eta haien gaitasunak aktiboki aitortzea ezinbestekoa izan da zerbitzuak arrakastatsuak izateko. Praktikan egindako jardueretan, esaterako, "Emozioen semaforoa" edo "Botak aldatuz", argi geratu da ingurune egokitu batek pertsona bakoitzaren garapenean duen garrantzia. Jokalari batek lehen aldiz bere esperientzia pertsonala partekatu zuen unean ikusitako emozioek nabarmen erakutsi dute inguru inklusibo batek duen ahalmena, non parte-hartzaile bakoitzak bere burua eroso eta seguru sentitzen duen.

Era berean, Verdugok et al.-ek (2012) dioten bezala, adimen urritasuna duten pertsonek dituzten behar espezifikoak kontuan hartzea funtsezkoa izan da, eta, zentzu honetan, esku-hartze honetan jarduerak bi taldeetan banatu behar izan dira parte-hartzaileen maila desberdinak errespetatuz, eta horrek estrategia pertsonalizatuak eta arreta espezializatua bermatu du. Praktikan ikusi ahal izan da horrek duen eragina, esaterako, "FIFAko kartak" jardueran, non parte hartzaileek elkarri buruzko balorazio positiboak egin zituzten eta autoestimua zein talde-kohesioa modu nabarmenean indartu zuen.

Halaber, nabarmendu behar da parte-hartzaile guztiek futbolarekiko interesa eta motibazioa erakutsi dutela, eta horrek ikaskuntza sozial eta emozionalaren prozesua erraztu duela. Horrek euren gaitasun pertsonalak garatzea eta taldearekiko atxikimendua sendotzea ahalbidetu du, esperientzia pedagogikoaren kalitatea eta eragina areagotuz.

Horrez gain, komunikazio inklusiboaren garrantzia ere nabarmen garatu da, Razquin-Planok (2021) eta Florian eta Black-Hawkins (2011) autoreek azpimarratzen duten bezala. "Bingoa

eta Fair Play" jardueran bereziki, komunikazio inklusiboak taldearen barruko elkarrekintza sustatu zuen, parte-hartzaileek elkar hobeto ulertu eta beren emozioak modu eraginkorrean adierazteko aukera izan zuten. Horrek erakutsi du komunikazioa ez dela soilik informazio transmisio huts bat, baizik eta pertsonen arteko ulermena eta harreman sakonak sortzeko tresna indartsua.

Emaitza positiboa izan da, arduradunen eta parte-hartzaileen feedbackean islatu den bezala. Parte-hartzaileek beraien arteko harremanak eta taldearen batasuna hobetu direla adierazi dute. Adibidez, "Bingoa eta Fair Play" jarduerak komunikazioa hobetu du, eta parte-hartzaile askok ondoren aipatu zuten ikaskideei buruzko ezagutza berria eta harremanetako hobekuntza nabarmena izan zela. Honen bidez, Puig et al.-ekin (2008) batera baiezta dezakegu, hezkuntza ez-formaleko jardueren bidez lortutako ikaskuntza esanguratsua izan ohi dela.

Horri gehitu diezakeiogu, kirol inklusiboaren rola ere funtsezkoa izan dela parte-hartzaileen garapenean, Latorrek (2025) eta Special Olympics-ek (2020) aipatzen duten bezala. Jarduera fisikoak, eta bereziki futbolak, aukera eman die parte-hartzaileei autoestimua handitzeko eta talde-lana garatzeko, aldi berean estresari aurre egiteko eta emozioen kudeaketa naturalki lantzeko. Praktikan, azken egunean egindako txapelketak eta ospakizunak, aipatutako onura guztiak agerian utzi zituen, parte-hartzaileek harreman pertsonal eta sozial sendoagoak sortzeko bide bat eskainiz.

Bestalde, ikasle moduan gaitasun espezifikoen lortze mailari dagokionez, Lehen Hezkuntzako Graduan zehar landutako gaitasunak praktikan jarri eta indartu ditut. Bereziki, garrantzia hartu du testuinguru anitzetan besteekin modu eraginkorrean komunikatzeko gaitasunak, baita ere talde-kohesioa sustatu eta gatazkak modu baketsuan kudeatzeko gaitasunak. Esperientzia honetan argi geratu da eguneroko lanaren bidez gaitasun hauek benetan lantzen direla: parte-hartzaileei entzute aktiboa eskainiz, gatazken aurrean enpatia eta ulermen bidez erantzunez, eta taldearen kohesioa sustatzeko jarduera zehatzak diseinatuz.

Horrez gain, ikasle moduan ere, ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo bizikidetza sustatzeko eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko gaitasuna garatu dut, esperientziaren esku-hartze guztietan ardatz izan baita lankidetza, enpatia eta ulermena. Era berean, hezkuntza-komunitateko hainbat eragilerekin (entrenatzaileak, fundazioko arduradunak, boluntarioak eta jokalariak) lankidetzan aritzeko trebetasuna sendotu dut, hezkuntza demokratikoa eta inklusiboa oinarri hartuta.

Laburbilduz, etorkizuneko lan profesionalari begira, esperientzia honek eman didan

autokonfiantza, plangintzarako eta egokitzeko gaitasuna, halaber, pertsonen arteko harremanen garrantziaren inguruko kontzientzia funtsezko tresnak bihurtu dira niretzat. Gradu amaierako lan honetan lortutako esperientziak irakasle moduan aritzeko beharrezkoak diren trebetasun pertsonalak eta profesionalak garatu eta sendotu ditudala esango nuke, etorkizunean aurkituko ditudan egoeretan modu malgu eta eraginkorrean jarduteko gaitasunean aurrera pausuak emanez. Ondorioz, ziurtasun osoz esan dezaket lan honek izan duen balioa hezkuntzaren ikuspegi inklusibo eta demokratiko batetik, eta nire praktika profesionalaren eraldaketan oinarri sendo bat ezarri duela.

## 7. LANAREN MUGAK ETA HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK

Amaitzeko lanak izan dituen mugak eta hobetzeko proposamenak jasotzen dira ondorengo atalean. Hori horrela, zerbitzuaren garapenari dagokionez, etorkizunean antzeko esku-hartze bat burutuz gero, bi alderdi nagusi hobetzea eskatzen duela esan dezakegu. Alde batetik, parte-hartzaileen jarraipena pertsonalizatuagoa egiteko aukera baloratu beharko litzateke, saioen artean bakoitzaren bilakaera zehatz-mehatz dokumentatuz eta, horrela, haien beharrei egokiago erantzuteko aukera izanik. Bestetik, saioen amaieran eskainitako hausnarketa-tarteetan, ere, denbora gehiago eskaintzea emaitza hobeagoak emango lituzke zerbitzuak, izan ere, denbora hainbatean muga bat izan da; jokalariek beren bizipenetatik ikasitakoa lasaitasunez partekatzeko aukera izatea aberasgarria litzateke, besteak beste, autokontzientzia eta talde-lotura gehiago indartzeko. Horrez gain, interesgarria liteke parte-hartzaileek eurek proposatutako dinamikak gauzatzea, inplikazio handiagoa eta autonomia sustatzeko helburuarekin.

## 8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK


Amado, A., Stancliffe, R., McCarron, M., & McCallion, P. (2013). Social inclusion and community participation of individuals with intellectual/developmental disabilities. *Intellectual and Developmental Disabilities,* 51(5), 360-375.

Aramburuzabala, P., Cerrillo, R., & Tello, I. (2015). *Aprendizaje-Servicio: Una herramienta para la educación integral*. Narcea.

Azorín, C. (2017) Análisis de instrumentos sobre educación inclusiva y atención a la diversidad. *Revista Complutense De Educación, 28*(4), 1043-1060.

Barquín-Cuervo, A., Medina-Gómez, A., & Albéniz-Garrote, R. (2018). Estrategias de afrontamiento del estrés en personas con discapacidad intelectual. *Siglo Cero,* 49(3), 7–24.

Battle, J. (2018). Service-learning implementation and practice: Theoretical and practical issues. *Journal of Experiential Education*, 41(1), 5-10.

Booth, T., & Ainscow, M. (2011). *The Index for Inclusion: Developing learning and participation in schools* (3rd ed.). Centre for Studies on Inclusive Education

Caride, J. A. (2020). *Educación social y acción comunitaria*. Editorial UOC.

Criado Aguilera, Y., & Pérez Díaz, S. (2022). Educación formal, no formal e informal: tres caminos complementarios para una formación integral. *Educatio Siglo XXI*, 40(2), 207-225.

Fernández, P. (2014). Autoestima y relaciones personales en personas con discapacidad intelectual. *Revista Española de Discapacidad,* 2(1), 25–40.

Fernández-Pérez, M. (2020). Intervención educativa y desarrollo de habilidades sociales. *Contextos Educativos*, 26, 83-99.

Florian, L., & Black-Hawkins, K. (2011). Exploring inclusive pedagogy. *British Educational Research Journal, 37*(5), 813-828.

Gajardo, J., Ulloa, J., & Nail, O. (2017). *Análisis de incidentes críticos en la sala de clases: una oportunidad de aprendizaje profesional docente*. Nota Técnica N°7-2017. LIDERES EDUCATIVOS, Centro de Liderazgo para la Mejora Escolar.

González-Gil, F., Martín-Pastor, E., & Castro, R. P. (2019). Educación inclusiva: barreras y facilitadores. *Revista de Currículum y Formación del Profesorado, 23*(1), 243–263.

Ke, X., & Liu, J. (2017). The ecological model of understanding intellectual disability. *Disability & Society, 32*(3), 417–435.

Kim, H., & Lee, S. (2023). Impact of a service-learning program using soccer training on the emotional and behavioral problems of children with developmental disabilities. *International Journal of Environmental Research and Public Health, 20*(3), 1234. https://doi.org/10.3390/ijerph20031234

León, M. J., & Hernández, J. A. (2019). El deporte como medio para la inclusión social de personas con discapacidad intelectual: análisis desde la práctica del fútbol. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (35), 178–184.

Marcelo, C., & Vaillant, D. (2015). *El A, B, C y D de la formación docente*. Narcea

Martínez, M., & García, A. (2015). Relaciones sociales y participación de personas con discapacidad. *Intervención Psicosocial,* 24(2), 97–106.

Montañés Serrano, M. (2012). *Metodología y técnica participativa: Teoría y práctica de una estrategia de investigación participativa.* Editorial UOC.

Puig, J. M., Batlle, R., Bosch, C., & Palos, J. (2011). Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía. Graó.

Puig, J. M., et al. (2008). *Guía para la implementación de proyectos de aprendizaje servicio*. Centre Promotor d'APS.

Ramírez Íñiguez, R. (2020). Educación no formal: marco conceptual y desafíos. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social,* 9(2), 209-227.

Razquin Plano, M. (2021). Comunicación accesible en personas con discapacidad intelectual. *Revista de Educación Inclusiva,* 14(1), 132-147.

Rubio, L. (2007). Metodologías activas en el aprendizaje y la acción social. Educación Social. *Revista de Intervención Socioeducativa,* 36, 55-66.

Tapia, M. (2010). Claves del aprendizaje-servicio. Cuadernos de Pedagogía, 403, 12–15.

Verdugo, M. A., Schalock, R. L., & Gómez, L. E. (2012). Calidad de vida y discapacidad: Fundamentos para la planificación y evaluación de calidad. *Siglo Cero*, 43(2), 5–19.

Verdugo, M. Á., Schalock, R. L., & Gómez, L. E. (2012). *Calidad de vida y discapacidad: Manual para la práctica profesional.* Alianza Editorial.

Special Olympics. (2020). *The Impact of Sports on Individuals with Intellectual Disabilities*. https://www.specialolympics.org

## 9. ERANSKINAK

### 9.1 Kategorizazioa

| Kategoria | Kolorea |
|---|---|
| Zalantzak/ kezkak | **Gorria** |
| Sentimendu positiboak | **Berdea** |
| Aspektu metodologikoak | **Urdin iluna** |
| Faktorea erreztatzaileak | **Horia** |
| Faktore oztopatzaileak | **Laranja** |
| Saioen ebaluazioa | **Urdin argia** |
| Ikasleen arteko harremanak | **Arrosa** |
| Irakasle-ikasle harremanak | **Morea** |

| | |
|---|---|
| Gertaerak | **Gris iluna** |
| Erabakiak hartzea | **Marroia** |
| Hezkuntza pertsonala | **Turquesa** |
| Ikaskuntza profesionala | **Beltza** |

### 9.2 Egunerokoa

## ***EGUNEROKOA***

**URRIAK 17 (2024/10/17)**

Nereakin nere lehenengo bilera izan da 9:30tan. Bertan berriro gainetik ikaskuntza zerbitzua zer den azaldu dit, ondoren bueltak ematen hasi gara zerren inguruan edo zein elkarterekin egin dezakedan lana. Hasiera batean ez genuen argi ikusten baino nik azaldu diodanean futbolarekin oso lotuta nengoela burura etorri zait Real Sociedadeko Fundazioarekin; hau da, Real Genuinerekin lan egin nezakeela eta idea horrekin atera naiz bileratik. Hurrengo urratsa Real fundazioarekin kontaktuan jartzea izango da.

**URRIAK 18 (2024/10/18)**

Kontaktua lortu behar dut, orduan kontuan nire lehengusuari eskatu diot, ea beak badakien zeinekin jarri naitekeen kontaktuan nire egoera azaltzeko. (Nire lehengusuari esan diot Realean entrenadore bezala lanean dabilelako) eta esan dit bere esku lagatzeko berak lortuko ditela kontaktua eta pasako ditela. Baino bere ustez baiezkoa emango didatela esan dit horrelako egoeretan laguntza bat beti eskertzen dutelako. Orduan orain itxoitea baino besterik etzait falta.

**URRIAK 24 (2024/10/24)**

Gaur nire lehengusuaren mezua iritsi zait. Mezuan arduradunetako baten emaila eta telefono zenbakia eman dit eta esan dit arazorik gabe deitzeko, egoera berak piskat azaldu diola baino badaezpada nik berriro azaltzeko eta ea zer esaten didan. Ondorioz gaur bertan Egoitzeri (arduradunari) deitu diot. Egoera azaldu diot eta esan diot berarekin bilera bat egitea gustatuko litzaidakela eta Egoitzek baiezkoa eman dit.. Bion agendak kontuan hartuta Azaroak 4ean adostu dugu hitzordu bat Reale Arenan (Anoetan) 12:30tan.

**URRIAK 31 (2024/10/31)**

Gaurko egunean ikaskuntza zerbitzua osatuko dugun ikasle eta irakasleak bildu gara 9:30tan, bertan berriro ikaskuntza zerbitzuaren nondik norakoa azaldu digute eta aurten ikaskuntza zerbitzua osatuko dugun ikasle guztiak ezagutu gara, azken finean elkarlan bat ere badelako. Bertan bakoitzak buruan ditugun ideiak plazaratu ditugu eta Maitane eta Nereak hurrengo urratsa zein den azaldu digute; hau da, Azaroak bukaerarako gutxi gora behera Marko teorikoaren eskematxo bat entregatu beharko dugula. Bertan 2-3 helburu zehaztu eta helburu bakoitzaren barruan 2-3 testu bilatu.

**AZAROAK 4 (2024/11/04)**

Esan bezala Egoitzekin bildu naiz eta bertan berak beraien talde edo proiektuaren nondik norakoan azaldu dizkit, esate baterako.

- Ekintza desberdinak egiten dituztela ez bakarrik futbola. Adibidez, pala, mendira ibiltzera, futbol sala…
- Igande goizetan entrenatzen dutela zubietako instalazioetan
- Ekipua mixtoa dela
- 4 irteera egiten dituztela urtean zehar (**1.**Azaroak 22-24 Tarragonan, **2.**Martxoak 15-16 A Coruñan, **3.**Maiatzak 10-11 Burgosen eta bukatzeko **4.** Maiatzak 30 Ekainak 1 Bilbon) esan zidan bidai horietan gatazkak gertatzen direla beraien artean.
- Bertan adin desberdin handiko jendea dagoela (eskolan bakarrik adin berdineko jendea beste leku denetan ez erlazioak ezberdinen artean)
- LOPIVI-ren protokolo bat dutela
- Maila diferenteak daudela jokalarien artean 1-2-3.
    - 1 zenbakia dutenak maila gutxien duten jokalariak.
    - 2 zenbakia dutenak erdi mailakoak
    - 3 zenbakia dutenak maila handienekoak

-ATZEGI-rekin elkarlanean oso estua dutela.

Baita ere hau guztiaz gain esan diodanean ikaskuntza zerbitzu honen helburua beraiek somatu duten behar bati guk eskuhartze bat burutzea dela. Berak esan dit “A priori” ez dutela beharrik, esan zin entrenadore bezala beti esku bat gehiago ongi etortzen dela baino nik azaldu nion hezkuntza ez-formaletik, hezkuntza formalera pasa behar dudala hau da irakaslearen ikuspuntutik. Hau da nire beldur handienetariko bat elkartea zein den kontuan hartuta futbolera asko bideratzea eta nire kontextua alde batera uztea, hau da, irakaslea ikuspuntu hori.

Baino bilerarekin amaitu baino lehen Egoitzeri ideia bat okurritu zaio, kasu honetan, elikadura osasuntsuaren inguruan. Jokalari asko gehiegizko pisua dutela azaldu dit. Orduan nik esan diot hurrengo hurratsa bilera honetan hitz-egindako guztia nire tutorakin (Nereakin) hitz egin behar dudala eta bertan adostuko dugula zein beharri eman diezaiokegun esku-hartze edo irtenbide hori.

**AZAROAK 7 (2024/11/07)**

Nerearekin bildu naiz bere bulegoan 9:00tan. Bertan Egoitzekin hitz egindako guztia azaldu diot eta helburu zehatz batzuk lotu ditugu eta nire GRAL-aren nondik norakoa adostu dugu. Kontuan hartuta 4 bidai horietan gatazkak edo tirabirak gertazen direla beraien artean eta entrenamenduetan adibidez rondoak egiterako orduan beraiek 3 maila duten jokalariak 3 maila dutenekin jartzen direla 1 maila duten jokalariak alde batera utzitz.

Pentsatu dugu parte hartze inklusibo batetik, formakuntza moduko bat ematea berdinen arteko gatazken inguruan.

Behin ideia hau buruan hartuta hurrengo pausua, Egoitzeri bururatu zaiguna azaltzea da beraien onespena behar dudalako eta behin beraien onespena edukita nire zerbitzuarekin martxan jarri.

**AZAROAK 12 (2024/11/12)**

Egoitzeri nire proposamen azaldu ostean, esan dit nire ideia egokia iruditzen zaiola baina azkenengo baiezkoa eman aurretik azkenengo bilera bat egitea gustatuko litzaiokela,

berarekin eta ATZEGIko arduradunetako batekin. Nire proiektuan zer landu eta nola enfokatu nahi dudan jakiteko eta beraien aldetik zer behar beharko nukeen jakiteko. Ondorioz hurrengo bilera Azaroak 20an izango da 16:30 ATZEGIko elkartean donostian.

**AZAROAK 18 (2024/11/18)**

Nereakin dei bat egin dut Azaroak 20ko bilera prestatzeko eta zer esan jakiteko, 5-8 minutuko dei bat izan da baino niretzako oso baliagarria izan da behintzat bilerara ideia batzurekin joango naizelako eta han nire burua defendatzeko gai izango naizelako.

**AZAROAK 20 (2024/11/20)**

ATZEGIrekin bilera egin dut 16:30-17:30. Bertan berrio nire zerbitzuaren nondik norakoak azaldu nizkien eta bertan gutxi gora behera esan didate beraiek nola landu nahiko luketen nire ideia hau baino gauza asko esan gabe. Baita ere beraietaz zer nolako beharrak beharko ditudan azaldu nien, nire TFG-a aurrera eramateko eta esan beharra daukat eskertzekoa dela bai Egoitzek eta baita ere Susanak kasu honetan (ATZEGIko arduradun bat)jarri dizkidaten erraztasun denak eta transmititu didaten lasaitasuna eta konfiantza oso lagungarriak izan dira. Horiei esker, zerbitzuaren egitura argi eta lasai garatu ahal izan dut, eta ez dut momentu bakar batean ere bakarrik sentitu nire burua.

**URTARRILAK 13 (2025/01/13)**

Gaur Nerearekin bilera bat izan dut. Bilera honetan, nire lanaren marko teorikoa nola antolatu behar dudan azaldu dit. Kasu honetan hitze egin dugu, marko teorikoaren egitura nolakoa izango dan, ideak koherentziaz nola jaso eta zer nolako oinarria behar dudan marko teoriko on bat egiteko. Gainera, Real Sociedad Genuine-ko jokalariei eskaini ahal izango dizkiodan zerbitzuei buruz ere hitz egin dugu. Zerbitzu zehatzez ez, baizik eta zer gai landu daitezkedan hausnartu genuen, eta horren arabera, saioak planifikatzeko oinarriak finkatu. Adostu dugu marko teorikoa eta zerbitzuen proposamen orokorra prestatu bezain laster bidaliko diodala berari, berak berrikusi eta oniritzia emateko.

**URTARRILA 26 (2025/01/26)**

Harrera beroa sentitu dut lehen egunetik, oso gustura egon naiz, gaur talde guztiari aurkeztu naiz eta horrek asko lagundu dit. Niretzat momentu hori garrantzitsua izan da, izan ere, beraiek jarrera oso positiboa erakutsi dute, eta horrek lasaitasuna eman dit hurrengo saioetan lan egiteko.

Esan bezala Zubietara lehenengo bisita egin dut. Lehen harremana denez, Egoitz ere bertaratu da, ni aurkezteko eta jokalariei azalpen bat emateko: nor naizen eta zergatik nagoen han. Eguna nahiko bizia izan da. Hasiera-hasieratik jakinarazi didate jokalari bat ez dela etorriko entrenamendura, moto trukatu bat duelako, eta, antza denez, sarritan erretzen ere ibiltzen da motoan eta kasu honetan, istripua izan du eta zazpi saihets apurtu ditu. Ondoren, beste jokalari bat agertu da, eta aurreko egunean jokatutako futbito partidu bateko bideo bat erakusten hasi zaigu mugikorrean. Bideoak ordubete irauten du, eta jokalariak zehatz-mehatz gogoratzen du noiz sartu zuen gola eta zer esan zuen ikusleek une horretan.

Horren ondoren, Axi eta Susana arduradunek beste jokalari batekin hitz egin behar izan dute, izan ere, taldeko kide baten zorroa aurkitu eta bereganatu egin du. Behin gertakari horiek guztiak pasa ondren esan beharra dago, entrenamendua normaltasunez garatu dela, eta

jokalariek erakutsitako maila oso ona iruditu zait. Horrez gain, harridura eta poza sentitu dut lehen egunetik erakutsitako harrera beroarengatik, kontuan izanda ez nindutela ezagutzen.

**OTSAILA 2 (2025/02/02)**

Bigarren bisitan, jada ezagutzen didate, eta lehen momentutik hurbildu dira niregana. Hasi baino lehen, entrenamenduan parte hartu dut, eta horrek aukera eman dit modu informalago batean beraiekin aritzeko eta beraiekin konfiantza gehiago eraikitzeko. Saioa hasteko prest nengoenean, eurek esan didate: ‘Gaur zer egingo dugu?’, eta nik ikusi nuen nola pixkanaka nire presentzia naturaltasunez hartzen ari diren. Taldeko kide bat gehiago banintz bezala tratatuz didate. Egun honetan ez da lehenengoan bezainbeste gertakari nabarmen izan, baina oso baliagarria izan zait taldearen dinamika hobeto ezagutzeko eta jokalarien maila zein den aztertzeko. Horrek lagundu dit nire zerbitzuak egokitzeko eta taldearen beharretara hobeto moldatzeko.

**OTSAILAK 9 (2025/02/09)**

Hasieratik badakit lehen taldeko partaideek gaitasun handiagoa dutela, baina ez dakit zehazki zein mailatara iritsi daitezkeen, eta horrek zalantza sortzen dit. Lehenengo zerbitzuaren eman ostean argi ikusi dut gehiago eman dezaketela, eta horrek aukera eman dit hurrengo saioak hobeto egokitzeko. Bigarren taldearekin, hasierako erritmoa egokia dirudi baina denborarekin konturatu naiz jarduerak sinpleagoak izan beharko direla.. Bi taldeentzako zerbitzuen egitura berrikusi eta mailaren arabera berrantolatu behar izan dut.

**OTSAILAK 16 (2025/02/16)**

Egoitzekin kontaktuan jarri naiz zerbitzuen datak adosteko. Hasieran prestatu dudan egutegia bidali diot, eta hark jokalariei pasa zien informazioa, aurretik prest egon zitezen. Beraientzat oso garrantzitsua da aldez aurretik jakitea noiz eta zer egingo den. Hala ere, Zubietako instalazioen erabilgarritasunaren eta Genuine txapelketako egutegiaren ondorioz, hasierako data batzuk aldatu behar izan ditugu. Behin aldaketak eginda, berriz pasa nien egutegia berak jokalariei eta arduradunei. Horrek erakutsi dit antolaketa eraginkorra ezinbestekoa dela eta egutegia denboraz egokitzea proiektuaren arrakastaren parte dela.

**OTSAILAK 18 (texto informativo a los padres) (2025/02/18)**

Egoitzek idatzi dit, eta eskatu dit gurasoentzako testu informatibo bat prestatzeko. Testu horretan azaldu behar diet nor naizen, zer egingo dudan, zergatik ibiliko naizen haien seme-alabekin lanean eta zer helburu nituen zerbitzuekin. Garrantzitsua da gurasoek ulertzea zertan zetzan nire presentzia, eta konfiantzazko testuingurua sortzea. Nire burua aurkeztu, proiektuaren izaera laburbildu eta saioen iraupena eta dinamikaren xehetasun nagusiak bildu ditut. Behin testua bukatuta, bi hizkuntzetan Egoitzi bidali diot, eta bera arduratu zen gurasoei helarazteaz. Hau izan da nire lehen harreman zehatza familiekiko, eta oso garrantzitsua iruditu zait.

**Estimadas familias,**

Me llamo Aimar Arrona y soy estudiante de 4.º año de Magisterio. Como parte de mi Trabajo de Fin de Grado (TFG), voy a realizar una serie de sesiones con los jugadores de la Real Sociedad Genuine, con el objetivo de ayudarles en su desarrollo personal y social a través del fútbol.

A lo largo de **seis sesiones**, trabajaré aspectos fundamentales como la comunicación, la gestión de emociones y la convivencia en equipo. Todo ello mediante actividades prácticas y adaptadas que les ayuden tanto dentro como fuera del campo.

**¿Qué vamos a trabajar?**
**1. Relaciones saludables y resolución de conflictos** – Estrategias para gestionar desacuerdos y fomentar un ambiente positivo.
**2. Comunicación efectiva entre compañeros** – Mejorar la expresión verbal y no verbal para entenderse mejor.
**3. Estrategias de comunicación inclusiva** – Facilitar la interacción con entrenadores, compañeros y familia.
**4. Habilidades personales y trabajo en equipo** – Reforzar la autoconfianza y la importancia de apoyarse mutuamente.
**5. Cooperación y espíritu de equipo** – Fomentar valores de compañerismo dentro del fútbol.
**6. Gestión emocional y motivación** – Identificar y canalizar emociones para mejorar la experiencia deportiva.

El objetivo es que estas sesiones les aporten herramientas útiles para su vida diaria, ayudándoles a desenvolverse mejor en el deporte y en su entorno. Agradezco su confianza y apoyo en este proceso.

Si tienen alguna duda o desean más información, estaré encantado de atenderles.

**Familia agurgarriak:**

Nire izena Aimar Arrona da eta Magisterioko 4. mailako ikaslea naiz. Graduko Amaierako Lanaren (GRAL) barruan, Real Sociedad Genuine taldeko jokalariekin saio batzuk egingo ditut, futbolaren bitartez euren garapen pertsonala eta soziala sustatzeko helburuarekin.

Sei saiotan zehar, komunikazioa, emozioen kudeaketa eta taldeko bizikidetza bezalako funtsezko gaiak landuko ditut. Horretarako, eremu praktikoko eta egokitutako jarduerak erabiliko ditut, bai zelai barruan bai kanpoan lagungarri izango zaizkienak.

**Zer landuko dugu?**

1. **Harreman osasuntsuak eta gatazken konponbidea** – Desadostasunak kudeatzeko eta giro positiboa sustatzeko estrategiak.
2. **Taldekideen arteko komunikazio eraginkorra** – Adierazpen ahozkoa eta ez-ahozoa hobetzea elkar hobeto ulertzeko.
3. **Komunikazio inklusiborako estrategiak** – Entrenatzaile, taldekide eta senideekin harremanak erraztu.
4. **Gaitasun pertsonalak eta talde-lana** – Autokonfiantza indartzea eta elkarri laguntzearen garrantzia lantzea.
5. **Lankidetza eta talde espiritua** – Futbolean laguntasunaren balioak sustatzea.
6. **Emozioen kudeaketa eta motibazioa** – Emozioak identifikatu eta bideratzea, kirol esperientzia hobetzeko.

Saio hauen helburua da eguneroko bizitzarako tresna baliagarriak eskaintzea, kirolean eta euren ingurunean hobeto

| | |
|---|---|
| Un cordial saludo,<br>Aimar | moldatzeko lagungarriak izan daitezen. Eskerrik asko prozesu honetan emandako konfiantzagatik eta babesagatik.<br><br>Zalantzarik baduzue edo informazio gehiago nahi izanez gero, pozik lagunduko dizuet.<br><br>Agur bero bat,<br>Aimar |

**OTSAILA 23 LEHENENGO ZERBITZUA (2025/02/23)**

Gaur eman dut lehenengo zerbitzua, eta lehenengo taldearekin egin dut bakarrik, gaitasun handiagoko jokalariekin. Oso gustura gelditu naiz eta pozik atera naiz saiotik. Hasieran urduri nengoen, ez bainuen ziurtasunik nola hartuko zuten dinamika, baina lehen momentutik giro lasaia eta parte-hartzaile sortu da. Taldeak oso ondo erantzun du, erritmoa bizkor hartu dute eta dinamikan aktiboki parte hartu dute. Dinamika garatu ahala, konturatu naiz talde honi gehiago exijitu ahal zaiola, eta hurrengo saioetan jarduera konplexuagoak planteatzeko aukera izango dudala. Saio honek aukera eman dit taldearen benetako gaitasuna ezagutzeko eta hurrengo diseinurako oinarri sendoa lortzeko. Bukatzean, jokalarien aldetik erantzuna oso positiboa izan da, eta nik neuk ere poza eta lasaitasuna sentitu dut, lehen pausoa emanda dudala eta norabide egokian nagoela ikusita eta 6.go helburua bete dut.











**OTSAILA 26 (2025/02/26)**

Zubietara joan behar izan det igandean taldearekin bakarrik egongo naizelako eta jakiteko nora eraman behar ditudan eta zein gelatan izango den egokiena zerbitzua ematea. Unibertsitateko klasea bukatu bezain pronto, zuzenean zubietara joan behar izan det, azkenengo klasea 14:30 bukatzen det eta 15:00tan egon behar nuen zubietan.

**MARTXOAK 2 BIGARREN ZERBITZUA (2025/03/02)**
Bigarrengo zerbitzu honetan “prentsa-aurrekoa” izeneko zerbitzua eman dut. Gaur ez nago hain urduri lehenengoa jada emanda dudalako eta gutxi gora behera beraien prestutazuna nolakoa izango den ere badakidalako. Hasieratik gogotsu eta lanean jarri dira, nik banatutako fitxak betetzen joan dira binaka eta beraien artean lagundu dira arazoak eduki ditutztenean. Gero besteen aurrean hitz egiterakoan 6 bikotetatik 5ek ozen irakurri dute mikrofonoa eskutan baino bikote batek ez du egin nahi izan lotsagatik eta ez nien behartu egitera. 2.go helburua bete det.

Zerbitzu amaieran, talde osoarekin laburki hausnartu dugu. Batzuek esan dute oso ondo pasatu dutela eta gustatu zaiela elkarri buruzko informazioa jakitea. Batek esan du "ni ez nintzen konturatzen Xek horrelako gauzak gustuko dituenik", eta beste batek esan du "entzutea eta barre egitea izan dela onena". Hori entzuteak asko animatu dit.

Gainera, aurkezpen bakoitza amaitzean, nik egiten nuen galdera bat taldera zuzenduta: “Orain inork sentitzen al du bere burua X-rekin identifikatuta?” Galdera honek hausnarketa eta elkarrekintza aberatsa sortu du. Horrez gain, animatzen nituen zerbait ona esatera, edo aurkezten ari zen pertsonari buruz gustatzen zitzaien zerbait esatera. Une hunkigarriak sortu dira batez ere jokalari batekin: Gehien gustatu zaiena galdetu diet eta nola sentitu diren galdetu dietenean taldeko ia guztiek gutxienez gauza positibo bat esan diote, eta hark, hunkituta, esan du: “Muchas gracias a todos hoy salgo con el pecho engrandecido por todas las cosas que me habeis dicho y llevo el corazón lleno” Momentu horretan, eta talde osoak elkarri besarkada eman zion. Une horretan emozio handia sentitu nuen; izan ere, gauza txiki batek horrenbeste eragin zezakeela konturatu nintzen. Dinamika amaitu ostean nik neuk esan nien nola ikusten nituen, eta momentua benetan hunkigarria izan zen guztiontzat.

Baita ere esan behar da bikote guztiak ez direla atera hitz egitera lotsagatik, gehiengoek egin dute baino 2 bikotek ez dute parte hartu, idatzi eta paperak bete dituzte baino ez dira hitz egitera atera.





| | |
|---|---|
|  |  |
|  |  |
| RPReplay_Final1744978746.mov | RPReplay_Final1744978778.mov |
| RPReplay_Final1744978828.mov | RPReplay_Final1744978801.mov |

**MARTXOAK 10 (2025/03/10)**

Zerbitzu guztien planifikazioa oso aurreratua daukat, baino konturatu naiz talde bakoitzaren erritmoari egokitzea ez dela nahikoa: motibazioa mantentzea ere garrantzitsua dela. Hori dela eta, bi taldeentzako dinamika eta baliabide desberdinak prestatzen hasi naiz, eta ideia berri hau bururatu zait: FIFA karta sortzea bigarren taldearentzat bereziki egokia izan zitekeela, elkarren arteko ezagutza eta balorazioa sustatzeko. Hurrengo zerbitzurako gauzak zehatzago prestatu ditut, eta aurreikuspen handiagoarekin planifikatzeko ohitura hartu behar dudala konturatu naiz.

Era berean, saioen arteko tarteetan, jokalarien arteko harremanetan aurrerapen txikiak nabaritzen hasi naiz. Ohartu naiz aurrekoetan ez zirela elkarrekin askotan hitz egiten eta isiltasunak egoten zirela baino lehenengo bi zerbitzuak eman ondoren pixkanaka elkarri gauzak galdetzen eta laguntzen hasi dira. Horrek adierazten du konfiantza giro bat sortzen ari dela. Horrez gain, momentu hauetan neure burua gehiago exijitzen hasi naiz talde bakoitzari ondoen datorkion diseinua aurkitzeko.

**MARTXOAK 21 (2025/03/21)**

Nereakin bere bulegoan geratu naiz nire hurrengo pausuak zein diren jakiteko, eta bilera horren ostean geratu naiz aste santuak bukatzerakoan Marko teorikoa zuzenduta eta bukatuta egon behar dela.

**MARTXOAK 23 HIRUGARREN ZERBITZUA (2025/03/23)**

Gaur "Botak Aldatuz" izeneko zerbitzua landu dut lehenengo taldearekin, hau da, gaitasun handiagoko jokalariekin. Zerbitzu honetan bikoteka banatu ditugu, zerbitzua eman baino lehenago egoitzekin adostu nituen ze bikote egingo genituen, (beraien artean ere desberdintasun handia dagoelako eta gaitasun gehien zutenak, gutxien zutenekin jarri genituen) eta bakoitzak bikotekideari kontatu behar izan dio benetan bizitako edo bizitzen ari den gatazka bat. Ondoren, azaltzen zuten zergatik erreakzionatu zuten horrela, nola sentitu ziren eta zer egin zuten egoera horretan. Behin hori eginda, bikotekideak “beste botak jantzi” behar izan zituen, hau da, bere burua bestearen tokian jarri eta beste modu bat proposatu behar izan zuen gatazka horri aurre egiteko.

Zerbitzua oso aberasgarria eta hunkigarria izan da. Jokalariak zabaldu egin dira erabat, espazio seguru bat sortu delako, non beren bizipen pertsonalak lasaitasunez eta beldurrik gabe partekatu ahal izan dituzten. Batzuek istorio gogorrak kontatu dituzte: adibidez, bat gaztetan "Jaime belarri luzeak" deitzen ziotelako sufritu zuela kontatu du; beste batek esan du bere familia ez dela ados bere bikotekidearekin eta bere ama bakarrik onartzen duela harremana; eta beste batek, are gehiago, aitortu du ikastolan jipoitu zutela eta etxeraino jarraitzen ziotela. Horietako batek esan du lehenengo aldiz kontatu duela bere istorioa. Horrek erakusten du benetako konfiantzazko giroa lortu dugula, eta harro nago talde honek sortu duen elkarren arteko babesetik.








**MARTXOAK 27 (2025/03/27)**

Egoitzen Agurra, orain arte egin dudan ibilbide guztia Egoitzeri esker izan da, bera izan baita nire lehenengo kontaktua eta lehenengo momentutik sinetsi duena nire lanean. Bere irteera pena bat izan da, baina zorionez Axierrek berehala hartu du ardura eta oso prest agertu da denetarako. Aldaketa bat izan da niretzat, baina ez da oztopo bihurtu. baino beste proiektu bat atera zaio eta Realeko Fundazioa laga du egun batetik bestera. Ondorioz orain Hemendik aurrera eta azkenengo 2 zerbitzuak eta festa edo itxiera eguna Axierrekin egingo ditut. Egoitz eta Asier ziren Real fundazioko nagusiak. Orain bakarrik Asier geratzen da eta hemendik aurrera goian esan dudan bezala dena berarekin adostuko dut eta bera egongo da zerbitzuetan.

**MARTXOAK 30 Laugarren zerbitzua (2025/03/30)**

Fifa kartaren zerbitzua: Real Sociedad Genuine taldearekin jarduera bat egin dut, FIFAko karta pertsonalizatuak sortzean oinarritua, baina ohikoak ez diren ebaluazio-irizpideekin.

Lehenik eta behin, galdetu diet ea inoiz FIFA jokatu duten . Batzuek baietz esan dute, beste batzuek ezetz. Guztion artean azaldu dugu zer den FIFA. Ondoren, galdetu diet ea zer den FIFAko karta bat. Gehienek bazekiten, baina inoiz jokatu ez dutenek ez, beraz, guztientzako azalpena eman dut.

Behin denok gaian kokatuta geundenean, azaldu diet gure FIFA kartak sortuko ditugula. Nik etxetik kartak inprimatuta neramatzan, bakoitzaren argazkia, taldeko ikurra eta banderarekin. Ebaluazio-irizpideak bakarrik falta dira.

Horretarako, lau talde txikitan banatu ditut. Talde bakoitzak gutxienez hiru irizpide proposatu behar ditu, baina ez futbol arlokoak, baizik eta talde-lanarekin lotutako balioak: adiskidetasuna, errespetua eta antzekoak.

Azkenik, honako sei irizpide hauek hautatu ditugu: **adiskidetasuna, errespetua, jarrera, komunikazioa, kontrola eta zoriontasuna**. Talde bakoitzari galdetu nion zein irizpide proposatu zituzten, eta guztiak arbelera idatzi ditugu. Gero, boto bidez hautatu ditugu azken seiak.

Irizpide horiek erabakita, parte-hartzaile bakoitzari beste kide baten karta eman diot, eta 0tik 100era arteko puntuazioa eman behar diote irizpide horiek kontuan hartuta. Guztiek amaitutakoan, bakoitzari bere karta itzuli diot. Parte-hartzaileak erdira ateratzen dira, eta haien puntuazio orokorra irakurri dugu. Behin hori eginda ebaluazioa egin dutenak nahi badu aukera izan du azaltzeko zergatik jarri dion puntuaketa hori. Bestalde, pertsona ebaluatua bere iritzia eman zezakeen, ados zegoen ala ez, eta beste edozeinek zerbait positiboa gaineratu zezakeen.

Behin guztiek prozesua gaindituta, bakoitzak bere karta eskuratu du, argazkia atera diet eta karta etxera eraman dute.








**APIRILA 6 Bostgarren zerbitzua (2025/04/06)**

Lehenengo esan beharra daukat ziurtasun osoz esan dezaketela asko gustatu zitzaiela, lehengo astean emandako zerbitzua FIFA kartarena batzuek esan baitzidaten beraien logelan zintzilikatu zutela karta.

Orain bai gaur egin dudan zerbitzua azken zerbitzua izan da, eta benetan esperientzia oso positiboa izan da. "Konektatu eta Joka Garbi" izeneko dinamika landu dugu, bi zatitan banatuta: lehenik, komunikazioan oinarritutako bingo interaktiboa eta, bigarrenik, Fair Play-a hausnartzeko dinamika bat.

Saioa gelan egin dugu eta hasieran solasaldi labur batekin sartu gara gaian. Parte-hartzaileek norekin hitz egiten duten gehien, nola komunikatzen diren, eta ea benetan

entzuten duten edo galderak egiten dituzten hausnartu dute. Giro lasaian hasi gara, baina azkar piztu da interesa eta motibazioa, batez ere bingo jolasarekin.

Bingo interaktiboan, parte-hartzaileek gelan zehar mugi behar izan dira, euren kideen esperientziak ezagutzeko. Kartoi bakoitzean komunikazioarekin lotutako esaldi bat dago, eta bere kideei galdetzen joan behar dira kartoiean agertzen ziren galdera kartoi osoa betetzeko. Adibidez: “Asteburu honetan hau egin duzu?” Hainbat barre-algara eta une dibertigarri sortu dira, batez ere izen batzuk kartoi osoan behin eta berriro agertzen hasi direnean. Hamar minuturen buruan, lehen “BINGO!” oihuak entzun dira eta horrek lehiakortasun sanoa ekarri du.

Jarraian, Fair Play-aren inguruko lanketa egin dugu lau taldetan banatuta. Talde bakoitzak gai jakin bati buruzko galderak erantzun behar izan ditu, hala nola: zer gustatzen zaien taldekideengan, nola sentitu diren aurkari batek errespetuz jokatu duenean edo zer esan nahi duen eurentzat “joka garbi”-ak. Ekarpen guztiak oso zintzoak eta aberasgarriak izan dira. Nabarmentzekoa da talde batek zera adierazi duela: "Fair Play-a ez da bakarrik zelai barruan; lagun bati epaile batekin arazo bat izan zuenean laguntzea ere bada."

Jokalari guztiek dinamikan parte hartu dute ilusioz, eta bereziki hunkigarria izan da nola konturatu diren Fair Play-a lantzeak duen garrantziaz. Izan ere, gogoratu behar da Genuine txapelketan azken fasea gelditzen zaiela, eta gainera, Lezaman jokatuko dute, etsaian zelaian. Gaur egun Fair Play sailkapeneko lehen postuan daude, eta oso gertu daude garaikurra irabaztetik eta aurkari historikoaren etxean altxatzeaz. Bereziki hunkigarria izan da jokalari batek esatea: “Irabaztea gustatuko litzaidake, baina jokabide onarekin irabaztea are gehiago.”

Dinamika amaieran, taldeak eskertu egin zidan saioa, eta asko nabarmendu zuten zein ondo pasa zuten eta zenbat gauza on ikasi zituzten. Nire aldetik, oso pozik nago azken zerbitzua amaiera goxo eta esanguratsuarekin ixteko aukera izan dudalako.

Oso pozik amaitu dut zerbitzua, baina batez ere harremanez harro sentitu nintzen. Azken saioetan gero eta gehiago hurbildu dira niregana, eta batzuk izena esaten didatenean irribarrez erantzuten didate. Uste dut konfiantza hori funtsezkoa izan dela esku-hartze osoan. Gainera, proiektu honetan ikasi dut nola egokitu edukiak eta jarrerak desgaitasun ezberdinetara, eta horrek nire hezitzaile moduko rolari indar handia eman dio.

Bukatzeko esan beharra daukat, saio guztiak bidali dizkietela bai nire GRALeko tutoreari, bai, Realeko arduradunei eta beti esan didate gustuko dutela egiten ari naizen lana eta ondo ikusten dituztela planteatutako helburuak eta dinamika bakoitzaren egitura. Ez dut inoiz egin saiorik haien baimenik gabe. Nik neuk ere balorazio orokor positiboa egiten dut, eta uste dut progresioa egon dela dinamiken diseinutik eta taldearen erantzunetik abiatuta.











**APIRILAK 7 (2025/04/07)**

Esku-hartze prozesu osoak aukera eman dit ikaskuntza pertsonal sakona egiteko: gatazken aurrean posizio neutro batetik laguntzen, desgaitasun desberdinekin lan egiteko estrategiak praktikan aplikatzen, eta talde bateko dinamika zaintzeko baliabideak erabiltzen. Era berean, profesional gisa, planifikazio malgu eta erreal bat diseinatu eta egokitzeko gaitasuna garatu dut, egoera eta beharren arabera aldatuz.

**APIRILA 13 Festa eguna eta agurra (2025/04/13)**
Pablo Marinen bideoa lortu nahi nuen baino ez dut lortu eta pena izan zen, baino bueno tortillak eta bizkotxoa eraman ditut entrenamenduaren ondoren jateko. Entrenamenduan nola nire azkenengo eguna den Axi (nagusia), Iñigo eta Joanes atzegiko langileak eta nik ere parte hartu dugu kontuan hartuta 32 jokalari gaudela guztira, ondorioz 4 ekipo sortu ditugu gutako bakoitza ekipo batekin jarri da eta partido desberdinak egiten joan gara denek denen kontra jolastu arte. Torneo txiki bat bezela, ondoren dutxara eta merendola modukoa egin dugu, nik hitz batzuk bota dizkiet beraiek niri ere bai eta itxiera moduko bat egiteko resumen txiki bat egin dugu denen artean nik emandako zerbitzuak kontuan hartuta eta talde batek besteari azaldu dio bakoitzarekin zer landu dudan kontuan hartuta talde guztia bitan banatu dugula eta talde bakoitzarekin ideia desberdinak landu ditudala. Ondoren jokalari bakoitzari berarekin ladutako zerbitzuen balorazioa pasa diet eta denek balorazioa bete ondoren eta janari guztia jan ondoren egunari bukaera emateko denek batera argazki bat atera dugu.

| | |
|---|---|
|  |  |
|  |  |

 

**APIRILAK 14 AZKEN BALORAZIOA (2025/04/14)**

Esku-hartze prozesu hau amaitzearekin batera, atzera begiratu eta bizitakoa hausnartzeko unea heldu da. Hasteko, esan behar dut bidean hainbat moldaketa egin behar izan ditudala, eta horrek erakutsi dit egokitzeko gaitasuna izatea funtsezkoa dela. Talde bakoitzaren erritmora egokitu behar izan dut: lehen taldearekin jarduera konplexuagoak landu ditut, eta bigarrenarekin, aldiz, sinpleagoak eta pausatuagoak, beraien premietara hobeto moldatzeko. Momentuz momentu, aldaketak egitea eta plangintzak egokitzea beharrezkoa izan da.

Esperientzia orokorra oso positiboa izan da. Lehen egunetik giro ona nabaritu nuen, eta saioak aurrera joan ahala, konfiantza handiagoa sortu da. Batzuek lehen aldiz partekatu dituzte euren bizipen pertsonalak, eta horrek asko esan nahi du niretzat: benetako espazio seguru bat sortu dugula. Saio bakoitzean ikusi dut nola hazi diren talde bezala, nola hobetu duten komunikazioa eta nola sortu diren une hunkigarriak, taldeko babes eta ulermen handiagoarekin.

Ikaskuntza asko eraman ditut etxera. Batetik, gatazken aurrean nola lagundu eta nola kudeatu ikasi dut, beti neutraltasunetik eta ulermenetik abiatuta. Bestetik, desgaitasun desberdinetara egokitzeko estrategia praktikoak landu ditut, eta hezitzaile bezala neure burua sendoago ikusten dut orain. Gainera, konturatu naiz plangintza bat izatea oso garrantzitsua dela, baina are garrantzitsuagoa dela hori moldatzeko prest egotea.

Esperientzia honek ni pertsona moduan ere aberastu nau. Ez da izan soilik unibertsitateko lan bat; harremanetan oinarritutako prozesu bat izan da, eta harreman horiek izan dira esanguratsuenak. Jokalari askorekin lotura berezi bat sortu dut, eta askok nire izena irribarrez deitzen zidatenean, sentitzen nuen nire presentzia baloratzen zutela. Azken saioetan gertutasun handiagoa nabaritu dut, eta hori da, zalantzarik gabe, proiektu honetako altxorrik handiena.

Lortutako konpetentzien artean daude plangintza eta egokitzapena, talde-dinamika eta lidergoa, gatazken kudeaketa, komunikazio eraginkorra eta aniztasunarekiko errespetua. Baina horiez gain, beste zerbait irabazi dut: konfiantza. Nire buruarengan, nire lan egiteko moduan eta nire hezitzaile rolaren indarrean.

Agian, faltan bota dudan gauza bakarra izan da familiekiko harreman gehiago izateko aukera. Gurasoei informazio-testua bidaltzea aukera polita izan zen, baina saio baten bidez haiek ere inplikatzea aberasgarria izango litzateke etorkizunean.

Azken batean, oso harro nago egin dudan lanaz, eta esker onez amaitzen dut etapa hau. Niretzat zerbitzu hauek ez dira izan helburu akademiko bat soilik, baizik eta bizipen aberats eta eraldatzaile bat. Eta hori da nirekin betiko geratuko dena.

### 9.3 Emandako zerbitzuak

## ZERBITZUAK

### 1. MULTZOA: (Lehenengo taldearekin egindakoak)

| 1. saioa: Emozioen semaforoa (1 h) |
|---|



**Helburua**: Emozioen semaforoaren zerbitzuarekin futbolaren barruan nola sentitzen diren identifikatzen laguntzea eta, batez ere, emozio horiek modu positiboan kudeatzeko tresnak ematea.

**Materiala:**

- Ordenagailua eta Proiektorea
- Post it eta boligrafoak
- Nik sortutako semaforoa kartulinarekin

**1- Sarrera: Nola sentitzen gara futbolean? (10 min)**

Taldea erdi-zirkuluan bilduko dut eta galdera oso erraza egingo diet:

- "Nola sentitzen zarete gola sartzen duzuenean?"
- "Eta baloia galtzen duzuenean?"
- "Nola sentitzen zarete lagun batek gauza zail batean laguntzen dizuenean?"
- "Uste duzue etxean gertatzen zaizuena futbolari eragiten diola eta alderantziz?"

Ondoren, kolore ezberdinetako hiru kartulina handi erakutsiko ditut eta esanahia azalduko diet. Hau da txotxetan kartulinak pegatu ditu kolore eta aurpegi desberdin batekin. Kolore

berdean poztasunezko aurpegi bat itxasi dut, horian aurpegi neutro bat eta gorrian haserre dagoen aurpegi bat.

**BERDEA** → Lasai nago, pozik, partidaz gozatzen.

**HORIA** → Zerbaitek molestatzen nau, baina oraindik kontrolatu dezaket.

**GORRIA** → Oso haserre nago eta gaizki erreakzionatzeko arriskua dut.

Denek bereizketa hori ulertzen dutela ziurtatzeko, adibide txiki batzuk jarriko ditut eta behin bermatzen dudanean ulertu dutela, dinamikarekin hasiko naiz:

- Gol bat sartzen duzunean nola sentitzen zara?
- Zuen postre gustukoena gabe geratzen zaretenean?
- Nola sentitzen zarete lagun batek zerbait zailean laguntzen dizuenean?

Emozio bakoitza keinuekin eta adierazpenekin antzezteak ideia barneratzen lagunduko die, azalpen luzeak behar izan gabe.

## 2. Emozioen Sailkapen Jokoa - "Zein kolore naiz?" (20 min)

Futbol eta bizitzako egoera ezberdinekin power point bat eramango diet, eta jokalari bakoitzak egoera horretan zer sentitzen lukeen erabaki behar du, kolore batekin adieraziz.

Adibideak:

- Imajinatu asko gustatzen zaizuen zerbait oparitzen dizuetela" → Nola esertzen zarete?
- Orain imajinatu asteazkenean Real Madridyren aurka Reale Arenara eramatea agindu dizuetela eta gero ez zaituztetela eramaten" → Nola sentitzen zarete?
- Lagun batek min egiten dizuen zerbait esaten dizue" → Nola sentitzen zarete?
- Zure lagunak baloia pasatzen dizu eta gola markatzen du.
- Penalti bat huts egiten duzu partida batean.
- Baloi bat galdu ondoren oihukatzen dizu kide batek.
- Entrenatzaileak zorionak ematen dizkizu egin duzun ahaleginagatik.
- Aurkari batek bultza egiten dizu eta arbitroak ez du ezer pultsatzen.
- Zure familiak esaten dizu zutaz harro daudela.
- Lagun batek ez dizu berarekin jolasten uzten.
- Lurrera erortzen zara eta barre egiten dute.
- Ez duzu ulertzen zerbait barre egiten dute zutaz klasean, lagunekin, etxean edo lanean.
- Eskatu diozun mesede batekin laguntzen dizu lagun batek.

Jokalari bakoitzak karta berde, hori eta gorri bana izango du, eta egoera bat entzuten dutenean, iruditzen zaien kolorea altxatuko dute.

## 3. "Nola itzuli berdera?" - Kolorea aldatzeko estrategiak (15 min)

Orain emozio horiek kudeatzen ikastea tokatzen da, batez ere horiak eta gorriak.

Bi galdera gako egingo dizkiet:

- "Gorrian bagaude, zer egin dezakegu berriz berdera itzultzeko?"
- "Horian bagaude, nola saihestu gorrira iristea?"

Bisualago egiteko, semaforo marrazkidun kartulina handi bat jarriko dut eta kolore bakoitzean jokalariek proposatutako estrategiak itsatsiko ditugu.

**BERDEAN EGOTEN JARRAITZEKO ESTRATEGIAK:**

- Taldekideei animoak eman.
- Jokoaz gozatu, akatsek kezkatu gabe.
- Gogoratu garrantzitsuena ondo pasatzea dela.

**GORRIRA EZ IRISTEKO ESTRATEGIAK:**

- Taldekidearekin edo entrenatzailearekin lasai hitz egin.
- Erreakzionatu aurretik arnasa hartu.
- Partida jarraitzen duela gogoratu eta aukera gehiago egongo direla.

**GORRITIK BERDERA IGAROTZEKO ESTRATEGIAK:**

- Erantzun aurretik bost arte zenbatu.
- Momentu batez urrundu eta mugitu tentsioa askatzeko.
- Negatiboan pentsatu ordez, positiboa aurkitu (adibidez: "Gola huts egin dut, baina ate aurrean iritsi naiz, hori ona da").

**4. Azken Hausnarketa - Zer ikasi dugu? (5 min)**

Zirkuluan eseriko gara eta jokalari bakoitzak esaldi hau osatuko du:

- "Futbolean haserretzen naizenean, orain badakit ____ egin dezakedala."
- "Gaur ikasi dut, ____ gertatzen zaidanean, oihukatu ordez ____ egin dezakedala."

Jokalari batzuen azken iruzkinak (adibide gisa):

- "Lehen haserretzen nintzenean, geldi geratzen nintzen jolastu gabe. Orain badakit arnasa hartu eta jarraitu dezakedala."
- "Gustatu zait ikustea nire taldekideei ere gauza bera gertatzen zaiela."
- "Baloia galtzen dudanean positiboan pentsatzen saiatuko naiz."

**Saioaren abantailak:**

Saio honek jokalariei aukera eman die euren emozioak modu bisual eta errazean identifikatzeko eta adierazteko. Semaforoaren koloreen (berdea, horia eta gorria) eta aurpegien bidez, egoera ezberdinetan nola sentitzen diren hausnartzeko eta bereizteko gaitasuna landu dute. Gainera, futbolarekin eta bizitza pertsonalarekin lotutako adibide errealak erabilita, emozioen eta jokabideen arteko lotura erraz ulertu dute.

Bestalde, emozio biziei aurre egiteko estrategiak taldean sortu eta partekatu dituzte. Bost arte zenbatzea, arnasa hartzea edo positiboan pentsatzea bezalako proposamen praktikoak jokalarien esku jarri dira, egoera gatazkatsuen aurrean autokontrola eta lasaitasuna lantzeko. Azken hausnarketa partekatuan, jokalariek euren bizipenak elkarbanatu dituzte, eta taldeko enpatia eta konfiantza giroa indartu da. Saio dinamiko eta parte-hartzailea izan da, jokalarien erritmora eta beharretara egokitua.

## 1. MULTZOA: (Lehenengo taldearekin egindakoak)

### 2. saioa: Prentsaurrekoa (1 h)




**Helburua:** Komunikazioa, lankideen arteko konfiantza eta talde lana sustatzea, jarduera dibertigarri baten bidez elkarren aurkezpena eginez, prentsaurrekoan kazetariak izango balira bezala.Bigarren helburua landuko da: 2. Lankideen arteko komunikazio eraginkorra Adierazpen ahozko eta ez-ahozkoa hobetzea, elkar hobeto ezagutu eta ulertzeko.

**Materiala:**
- Nik sortutako taula eta gidoia
- Boligrafoak
- Mikrofonoak

**1. Bikoteak osatzea (5 min)**

- Jokalariak bikoteka banatuko ditut.
- Azalduko diet elkarrizketa egingo dutela, bikotekidea hobeto ezagutzeko, eta gero taldekideei aurkeztuko diotela, fitxaketa berri bat balitz bezala, prentsaurreko batean.

**2. Bikotekideen arteko elkarrizketa (20 min)**

Jokalari bakoitzak nik prestatutako galderak egin beharko dizkio bere bikotekideari.
Erantzunak nik emandako paperean idatzi beharko dituzte.

Egiteko galderak:

- Nola duzu izena?
- Noiz da zure urtebetetzea eta nola gustatzen zaizu ospatzea?
- Anai-arrebak edo maskotak dituzu? Nola dute izena?
- Zer gustatzen zaizu futboletik kanpo egitea?
- Zein da zure janari gogokoena? Eta zein ez zaizu batere gustatzen?
- Zein musika edo abesti gustatzen zaizu partidua baino lehen entzutea eta pozik edo triste zaudenean?
- Noiztik jolasten duzu futbolean?
- Zein da zure posizio gogokoena zelaian?
- Zer disfrutatzen duzu gehien zure taldearekin jolastean?
- Nola sentitzen zara partida bat irabazten duzunean? Eta galtzen duzunean?
- Zer baloratzen duzu gehien taldeko lagun batean?
- Zer da zure buruaz harro sentiarazten zaituena?

## 3. Aurkezpenaren prestaketa (20 min)

Elkarrizketa amaitutakoan, jokalari bakoitzak testua osatu beharko du bikotekidearen informazioarekin.

Osatu beharreko testua:

Fitxaketaren aurkezpena:
"Gaur gure fitxaketa berria aurkezteko plazerra dugu: ____(izena). ____ (eguna/hilabetea) jaio zen eta bere urtebetetzea ____ (ospatzeko modua) ospatzea asko gustatzen zaio. Futboletik kanpo, ____ (gustuko jarduera) asko gustatzen zaio eta etxean ____ (maskotak/anai-arrebak eta izenak) ditu lagun. Bere janari gogokoena ____ da, baina ez zaio batere gustatzen ____. Partidua hasi aurretik ____ (musika/abestia) entzutea gustatzen zaio, eta pozik edo triste dagoenean ____ (beste musika bat). Futbolean jolasten du ____ (urte kopurua) urtetik eta bere posizio gogokoena ____ da. Bere taldearekin jolastean gehien disfrutatzen duena ____ da. Partida irabazten duenean ____ (emozioa) sentitzen da eta galtzen duenean ____ (emozioa). Bere ustez, taldeko lagun batean garrantzitsuena ____ da. Bere buruaz harroen sentiarazten duena ____ da. Txalo bero bat eman diezaiogun ____ (fitxaketaren izena)!"

## 4. Prentsaurrekoko aurkezpena (10 min)

- Bikote bakoitza aurrekaldera aterako da eta batek bere bikotekidearen aurkezpena irakurriko du.
- Irakurtzen duen bitartean, bestea "fitxaketa izar" moduan jarriko da, futbolari profesional baten aurkezpen ofiziala izango balitz bezala.
- Ikusleak hitz egiteko zailtasunak dituen jokalariari bikotekideak edo bertan daudenek lagunduko diote.

## 5. Taldearen parte-hartzea entzuten duten bitartean

Aurkezpen bakoitzaren ondoren, entzuten ari diren taldekideek ozen esan beharko dute fitxaketa berriaren zerbait gustatzen zaien edo zer gustatuko litzaiekeen beregan izatea.

### 6. Itxiera eta hausnarketa (5 min)

Jokalariei galdetu jarduera zer iruditu zaien eta zer ikasi duten bere taldekideei buruz.

Hausnartzeko galdera gakoak:

- Zerbait berria aurkitu dugu taldeko norbaiti buruz?
- Zergatik da garrantzitsua gure taldekideak ondo ezagutzea?
- Nola laguntzen digu honek zelaian?

**Saioaren abantailak:**

Saio honek jokalarien arteko komunikazioa eta konfiantza nabarmen indartu ditu. Elkarrizketa gidatuaren bidez, jokalariek elkar hobeto ezagutzeko aukera izan dute, eta aurkezpenaren unean, bestearen bizipenak modu publikoan aitortzeak talde-lotura sendotu du. Jarduera formatu dibertigarrian (prentsaurrekoa, fitxaketa berria) oinarritzeak motibazioa eta parte-hartze aktiboa areagotu ditu.

Bestalde, ahozko adierazpena, entzumena eta enpatia lantzeko aukera izan dute, jokalari bakoitzak beste baten istorioa kontatu behar izan baitu. Entzuleen parte-hartze aktiboak (fitxaketa bakoitzaren inguruan zer gustatzen zaien esanez) taldearen begirada positiboa sustatu du. Gainera, hitz egiteko zailtasunak dituztenentzat laguntza egituratua egotea gako izan da inklusibotasuna bermatzeko. Saioaren amaierako hausnarketak, berriz, elkar ezagutzeak zelaian ere nola laguntzen dien ulertzeko baliatu da.

## 1. MULTZOA: (Lehenengo taldearekin egindakoak)

## 3. saioa: Botak aldatuz (1 h)



**Helburua:** Beste norbaiten tokian jartzen ikastea eta gatazkak ikuspegi ezberdinetatik ulertzea. Honako helburu hauek landuko dira:

- Harreman osasuntsuak eta gatazken konponbidea
- Desadostasunak kudeatzeko estrategiak eta giro positiboa sustatzea.

**Materiala:**

- Arbela eta Permanentea

**Sarrera (10 min)**

Lehenik eta behin ezer esan aurretik pentsatzearen garrantziaz hitz egingo dugu.

- Azalduko dut batzuetan gatazkak sortzen direla beste pertsonaren sentimenduak ez ditugulako ikusten.
- Azalpen laburra: Hasierako galdera: "Inoiz haserretu zara norbaitekin eta gero konturatu zara agian ez zela hainbesterako?"
- Hausnarketa egingo dugu nola askotan pentsatu gabe erreakzionatzen dugun, beste pertsona nola sentitzen den kontuan hartu gabe.
- Azalduko dut gaurko ariketan gatazkak beste ikuspegi batetik ikusiko ditugula.

**"Botak Aldatuz" dinamika (20 min)**

**Zure gatazka azaldu:**

- Bikoteka jarriko ditut, eta bakoitzak bizitako gatazka bat kontatu behar du eta nola erreakzionatu zuen. (Futbolean edo kanpoan izan daiteke).
- Lehenik, jokalari bakoitzak azalduko du:

1. Zer gertatu zen egoera horretan?

2. Nola sentitu nintzen momentu hartan?

3. Zergatik erreakzionatu nuen horrela?

**Rolen trukea:**

- Orain, bikotekidea bere lekuan jarriko da eta istorioa beste ikuspegitik kontatzen saiatuko da.
- Helburua da beste pertsonak nola sentitu ziren ulertzen saiatzea eta zer egingo luketen desberdin.

**Irtenbide bila:**

- Elkarrekin, gatazka mota horiei aurre egiteko beste modu batzuk pentsatuko dituzte. Soluzio onenak apuntatuko dituzte taldean partekatzeko.

**Eztabaida eta soluzioak (25 min)**

- Talde handian batean, bikote bakoitzak bere gatazka kontatuko du eta nola sentitu diren bi aldeetatik bizitzean.
- Denboran atzera egin eta borroka batean esan edo egin zenuen zerbait aldatzeko aukera izango bazenu, egingo zenuke?

**Itxiera ( 5 min)** Jokalari bakoitzak besteak ulertzeaz zer ikasi duen partekatuko du.

**Saioaren abantailak:**

Saio honek enpatia sustatzeko eta gatazkak modu osasuntsuan lantzeko aukera paregabea eskaini die jokalariei. Eguneroko edo futbolarekin lotutako gatazken kontakizunetan oinarrituta, bakoitzak bere bizipenetik abiatuta sentimenduak partekatu ditu, eta ondoren, beste pertsonaren tokian jartzen saiatu dira. Horrek jokalariek egoera berdina ikuspegi ezberdinetatik bizitzea ahalbidetu du, eta horren ondorioz, ulermen maila handiagoa sortu da taldekideen artean.

Bestetik, bikoteka eta talde handian egindako lanaren bidez, gatazken inguruko hausnarketa sakona egin da. Irtenbide posibleak elkarrekin bilatzeak talde-lana eta iritzi desberdinekiko errespetua sustatu ditu. Parte-hartzaileek konturatu dira gatazka batean ez dagoela beti alde bakarra eta erantzun bakoitzak ondorioak dituela. Amaierako itxieran adierazi bezala, gehienek aitortu dute bestea ulertzen saiatzeari esker gatazka batzuk hobeto kudea daitezkeela. Saioa parte-hartzailea, aberatsa eta eraldatzailea izan da, talde kohesioan eta ulermen emozionalean eragin positiboa izanik.

## 2. MULTZOA: (Bigarrengo taldearekin egindakoak)

### 4. saioa: FIFAko kartak (1 h)




**Helburuak:** Gaitasun pertsonalak eta talde-lana garatzea, lankidetza eta talde espiritua indartuz. Helburua da jokalariek elkarri begirada positibo bat eskaintzea, taldean zer ekarpen egiten duten aitortzea eta norberaren indargune eta hobekuntza aukerak identifikatzea.

**Materiala:**

- Arbela eta Permanentea
- Boligrafoak eta nik sortutako FIFA karta pertsonalizatuak

**1. Sarrera (20 min)**

- Zuen ustez, zein ezaugarri izan behar ditu taldeko kide on batek? (Adibidea: errespetua, esfortzua, laguntza, alaitasuna…)

- Aipatzen dituzten ideia guztiak arbelera apuntatzen dira.
- Talde txikitan (3-4 pertsona): Aipatutako guztien artean, garrantzitsuenak diren 6 aukeratu behar dituzte.
- Azken bozketa: Talde bakoitzak bere 6 aukeratuak esaten ditu eta denon artean bozkatzen da azken 6ak erabakitzeko. Horiek izango dira txarteletan agertuko diren ezaugarriak.

## 2. FIFA Txartel Pertsonalizatuen Sorkuntza (15 min)

1. urratsa: Jokalari bakoitzari beste jokalari baten izena duen txartela emango zaio (zuk banatuko dituzu, hautaketa subjektiborik egon ez dadin).
2. urratsa: Jokalari bakoitzak bere taldekidea ebaluatuko du aukeratutako 6 ezaugarrien arabera, 0 eta 100 arteko puntuazioarekin.

## 3. Aurkezpena eta Azken Hausnarketa (20 min)

Jokalari bakoitzak bere txartela emango dio bere bikoteari eta elkarrekin irakurriko dute.

Hausnarketa egiteko galdera batzuk:

- Zer harritu zaitu zure txartelean?
- Uste duzu zure taldekideek zutaz duten pertzepzioa bidezkoa dela?
- Zein ezaugarri hobetuko zenuke zeure buruarengan?

Galdera horiei erantzun ondoren, ebaluazioa egin duen pertsonak azaldu behar dio bere lagunari zergatik eman dizkion nota horiek eta zerbait positiboa esan (adibidez, zer miresten duen beregan edo zein ezaugarri berezi iruditzen zaion).

## Itxiera (5 min)

- Talde lanaren garrantzia azpimarratuko da eta bakoitzak taldeari ekartzen dion balioa gogoraraziko da.

**Saioaren abantailak:**

Saio honek talde kohesioa eta autokonfiantza lantzeko espazio segurua eta dinamikoa eskaini du. Hasierako eztabaidak jokalariei aukera eman die taldeko kide on baten ezaugarriak identifikatzeko eta talde baloreak elkarrekin adosteko, giro parte-hartzaile eta demokratikoa sortuz.

FIFAko txartelen sorkuntza prozesuak, bestalde, enpatia eta begirada positiboa sustatu ditu: jokalariek beste taldekide baten dohainak baloratu dituzte modu konstruktiboan, eta balorazio horiek ahoz partekatu izanak hurbiltasuna eta elkarren arteko estimua indartu ditu. Hausnarketa unean, jokalariek euren burua nola ikusten duten eta taldeak nola ikusten duen alderatu dute, eta horrek autoezagutza eta norbere garapenerako motibazioa piztu du.

Azkenik, balorazioaren justifikazioa eta "zerbait positiboa esan" eskaerak mezu indartzaileak elkartrukatzeko aukera eman du, talde giro goxoa eta errespetuzkoa sendotuz. Jarduera osoak jokalarien arteko konfiantza eta taldearen osotasunarekiko konpromisoa areagotu ditu, eta oso baliagarria izan da komunikazio afektiboa lantzeko.

## 2. MULTZOA: (Bigarrengo  taldearekin egindakoak)

## 5. saioa: Bingoa eta Fairplay  (1 h)






**Helburuak:**Komunikazio inklusiboaren bidez talde-harremanak sendotzea eta elkarrenganako ulermena erraztea, jokalariek entrenatzaileekin, taldekideekin eta familiarekin duten elkarrekintza hobetuz. Era berean, Fair Play balioak barneratzea, zelai barruan eta kanpoan jokabide arduratsu eta errespetuzkoa sustatzeko.

**Materiala:**

- Ordenagailua eta Proiektorea
- Boligrafoak eta nik sortutako bingo kartoiak

**Sarrera (15 min)**

Gaian sartzeko solasaldi txiki bat:

- Norrekin hitz egiten dugu gehien: entrenatzaileak, taldekideak, familia?
- Nola komunikatzen gara? Entzuten dugu? Galderak egiten ditugu?
- Gaur elkar hobeto ezagutuko dugu… BINGO baten bidez!

**BINGO INTERAKTIBOA (20 min)**

Materiala: Bingo kartoiak esaldiekin (nahi baduzu, nik egingo dizut)

Kartoi bakoitzak komunikazioarekin lotutako ekintza bat dauka.
Gelan zehar mugitu behar dute eta besteei galdetu:

"Asteburu honetan hau egin duzu?"

Norbaitek esaldia betetzen badu, haren izena idatzi behar dute laukitxoan.
Kartoi berean ezin da izen bera errepikatu.

Lehenak lerro oso bat edo kartoi osoa betetzen duenean oihukatu behar du: ¡BINGO!

**Fair Play (20 min)**

4 taldetan banatuko ditut, eta talde bakoitzak galdera hauetako bati erantzun behar dio, eta gero nik diskurtso bat sortuko dut, irabaziz gero zer esan jakiteko.

- **Taldeari buruz:**
- Zer dauka berezitik gure taldeak?
- Zer gustatzen zaizue gehien zuen taldekideengandik?

- **Entrenatzaileei eta familiei buruz:**
- Zer ematen dizuete zuen entrenatzaileek?
- Zer eskertu nahi zenukete zuen familiei?

- **Aurkariak:**
